

BALEIKE

GUKA



HAURRAK, NEBAREAK ETA PANTAILAK

NOLA HEZI ARO DIGITALEAN?

INGELES A ETA FRANTSESA KET - PET - FCE - CAE - DELF - DALF



2023/24 kurtsorako
AURREMATRIKULA IREKITA

IKASTARO TRINKOAK
uztailaren 3tik 28ra, 09:00-13:00

Golden Gate
institute
hizkuntza eskola

ZUMAI A | 943-86 50 20
www.goldengateinstitute.com
info@goldengateinstitute.com
Erribera kalea, 1 Bis behe



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21

ferretería Galdona S.A.



burdindegia



Industriarako era guztietako
material, tresna, pieza, eta osagarriak.



**JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA · Pab. A6.1, 2-5 mod.
Tel.: 943 86 11 17**



BALEIKE 332

2023-EKAINA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | |
|----|--|----------------------------------|
| 5 | Korapiloa Mireia Galarza Bastida
<i>Zure esku, irakurle</i> | |
| 6 | Hitz tantak Intza Trula
<i>Joxe Aizpurua: "Adarra gal ez dadin jarraitzen dugu lanean"</i> | |
| 8 | Guka gara! | |
| 10 | Erreportajea Jabi Gonzalez Toston
eta Maria Maya Manterola
<i>Zentzuzko erabilera saretzen</i> | |
| 20 | Erretratua Juan Luis Romatet
<i>Esti Irureta, Zumaiako Udaleko Turismo teknikaria</i> | |
| 24 | Guka, parean eta pareko Andrea Zipitria | |
| | | <i>Saregile berrien amarauna</i> |
| 33 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Ezohikoak, baina normalak diren beldurrak</i> | |
| 34 | Plazan bazan | |
| 39 | Hamaika argi gure euskarari
Imanol Azkue Ibarbia eta Daniel Carballo Ostolaza
<i>Soldadutzara</i> | |
| 44 | Izpiak eta hizkiak Ivan Rodriguez Gomez
<i>Paregabeko sinkronia bat</i> | |
| 46 | Literatura Antton Peñalba
<i>Erretzaile damutzen konpainia</i> | |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus

Erredaktore taldea

Maria Maya Manterola
Mireia Galarza Bastida
Jabi Gonzalez Toston

Intza Trula
Onintza Lete Arrieta

Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna
Ane Azkue

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako Udala



ZUMAI
BIZITZEKO
DA

Babesleak:



DANOBATGROUP

DOMUSA
T E K N I K

PUBLIZITATEA

a3 diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 • fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com • www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-96 21 52

Aita Mari
JATEXEA
ZUMAIA

☎ 679 10 31 67
📍 Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com

f i

AIZPURUA
LIBRURIA
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Árdantzabide, 3 behe • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☎ 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupea

Naupasa, 2 • tel. 943-96 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Árdantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorraren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behe
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés, francés, euskara, inglés, alemán, español, catalán, sueco, húngaro, portugués, griego, italiano, japonés, coreano, chino, vietnamita, tailandés, indonesio, filipino, vietnamita, tailandés, indonesio, filipino.

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa
tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Miki Gormendia

Basadi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadidivul.com
www.basadidivul.com

Goleze: 11-13 / Arribakale: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Larrialdetarako: 605 72 87 07 Etkez etxeke zerbitzua

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patzita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKOA
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57
www.eduoptika.com

RPS 18/16

LIZZE

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

Zure esku, irakurle



MIREIA GALARZA BASTIDA

2.500 karaktere. Horiek idatzi behar ditudala esan zidan aurrekoan lankideak iritzi honetarako. Ondoren datoz zalantza pila bat. Zeri buruz idatzi behar dut nik? Ba al dut orri osoa betetzeko moduko iritzi eta gai mardulik?

Mardula izan edo ez, garbi dut gaur egun iritzia ematea erraza eta konplikatua dela aldi berean. Ausarta izan zaitezke iritzia ematen baduzu, baina lotsagabea ere bai oso argia bazara. Iritzia ez ematea, aldiz, koldarkeria ariketa bat izan daiteke batzuentzat, eta zentzudun jokatzeari besteentzat.

Ez dakit zuk, irakurle, baina nik hanka puntetan esaten dut askotan irizten dudana. Intentzio txarrik gabe bada ere, gaur egun ezin da iruzkinik egin kalean doanak jantzita daramana ez bazaizu gustatzen edo zure lagunak begi zuloak dituenek nekatuta dagoen galdetzen badiozu. Gauzak zer diren, ordea, ona esatea ere izugarri kostatzen zaio *homo sapiens*ari. Lotsatu egiten gara bestearen liburua irakurri eta izugarri gustatu zaigula azpimarratu nahi diogunean nahiz jantzitako kamisetaren koloreak ezagunaren aurpegian distira egiten diola aitortzean.

Hori guztia, fisikoki bata bestearen aurrean gaudenean. Zer gertatzen da, ordea, ezezagunez osatutako artalde baten zati garenean? Internetak onura asko ekarri ditu, baina baita albo kalte dezente ere, eta iritzia emateko gehiegizko aukera izatea da horietako bat. Izan ere, guztiek maskara zuriak janzten dituzten momentutik, dena lausotzen da. Izan zaitezke 12 urteko ume bat edo 80ko adineko bat, baina guztiena da abiapuntu bera iritzia ematerako orduan. Pertsona konkretuekin sar zaitezke, berari egin diezaiokeen mina inondik inora kontuan hartu gabe. Ezin dugu ahaztu, gainera, edozeini gerta dakiokela hori, baita zeuri ere, irakurle.

Nire helburua ez da etika lezioak ematea, ezta gutxiago ere. Hala eta guztiz ere, honi neurria hartu behar dugulakoan nago, bai alde batetik eta bai bestetik. Ona esan beldurrik gabe, eta ez hain ona batzuetan onartu. Txarra esaterakoan ondo pentsatu, eta ona entzundakoan eskertu.

Eta bai, irakurle, kontziente naiz lehen orria ireki eta nik, ataleko izenak dioen moduan, nire korapiloa adierazi dizudala. Izan ere, ez dakit testu honetako hitzak ez ote diren gehiago irudipenak pentsamenduak baino. Iritzia ematera ohituta ez nagoelako gertatuko zait hori, erosoago sentitzen naizelako hurrengo orrialdeetan irakurriko dituzuen kazetaritza testuak idazten, besteen bozgorailu izaten. Tira, nahi ala ez, aurrerantzean hemen ikusiko nauzu, baita hurrengo orrialdeetan ere. Nik kontatuko dizkizut gauzak, eta zure esku, irakurle, irakurri nahi nauzun erabakitzea. ■■■

**LEHEN ORRIA IREKI
ETA, ATALEKO IZENAK
DIOEN GISAN,
NIRE KORAPILOA
ADIERAZI DIZUET**

Joxe Aizpurua: "Adarra gal ez dadin jarraitzen dugu lanean"

TESTUA: INTZA TRULA

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Joxe Aizpurua (Zumaia, 1964) duela hogeit hamar urte murgildu zen adarra instrumentuaren munduan, bai horiek lantzen, baita jotzen ere. Gaur egun bere lanak azoketan eta enkarguz saltzen ditu, eta Zumaiaiko adar jole taldeko partaidea ere bada.

Animalien adarrak lantzen dituzu. Nondik datorkizu zaletasuna?

Adarraren soina entzutea betidanik gustatu izan zait, eta Zumaian sortu genuen joaldun talde batekin hasi zen guztia. Ez geneukan hura osatzeko materialik eta bila ibili ginen alde batera eta bestera. Nafarroako artisau batengana jo genuen, hark adarrak egiten zituen, besteak beste, baina ez genuen talderako gustukorik ikusi, eta esku hutsik itzuli ginen handik. Momentu hartan adarrak nik neuk egitea otu zitzaidan, eta horretarako adarrak non lortu begiratzeko hasi nintzen. Hala hasi nintzen, nire kasa, eta pentsatuko duzuen bezala, lehenengo adarrak hala moduzkoak atera zitzaizkidan, baina gaizki egindakoak ikasi, eta pixkanaka trukua hartzen hasi nintzen.

Zenbat urte daramatzazu horretan?

Duela hogeit hamar urte hasi nintzen, Zumaiaiko joaldun taldea sortzearekin batera.

Non sortzen dituzu adarrak?

Etzeko garajearen egiten ditut. Traste pila bat dut bertan, eta gehienetan bertan lantzen ditut adarrak. Hala ere, eta etxekoei grazia askorik egiten ez badie ere, garajearen aspertzen naizenean etzeko sukaldaria lekualdatzen naiz. Etxean egiten dut guztia.

Zenbat denbora eskaintzen diozu pieza bakoitzari?

Adar bakoitzak bere denbora eskatzen du, eta tamaina ere kontuan izan behar dugu. Adar txiki bati forma ematen sei ordu inguru pasatu

ditzakete, eta handi batekin, berriz, zortzi inguru. Barrukoa hustu behar da lehenengo, eta ondoren, lixatu eta txukundu egiten ditut.

Adarrak lantzeaz gain, jo ere egiten dituzu.

Bai, adarrak egiteaz gain jotzea ere asko gustatzen zait; Zumaiaiko adar joleen taldeko partaidea naiz. Euskal Jaietan, Emakumeon* Etxeak antolatzen dituen ekintzetan, Artisau Azokan eta beste hainbat ekitalditan jo izan dut adarra. Galtzen ari den zerbait da, eta hori gerta ez dadin jarraitzen dugu guk lanean.

Soberan daukazu materialarekin, berriz, bitxiak egiten dituzu.

Adarra amaitzean beti soberan geratzen dira zati batzuk, eta zakarretara ez botatzeagatik gorde egiten nituen, baina ez nuen ezer egiten beraiekin. Duela zortzi urte bikotekideak eta biok Oportora [Portugal] bidaia egin genuen, eta han emazteak eraztun batzuei begia bota zien, eta erosi egin behar zituela sartu zitzaion buruan. Orduan konturatu nintzen soberan nituen zatiak bitxiak egiteko erabil nitzakeela, eta oportetarik bueltan belarritakoak, lepokoak eta eraztunak egiten hasi nintzen.

Azoketan saltzen dituzu bai bitxiak, bai adarrak.

Bai. Zumaian, udaran, Artisau Azoka antolatzen da, eta bertan saltzen ditut bai bitxiak, bai adarrak. Horrez gain, Euskal Jaietan ere jartzen dut postua. Beste herrietara ez naiz joaten, Zumaian bakarrik saltzen ditut egindakoak. Hala ere, azoketan adar gutxi saltzen dira, normalean pertsonalki egiten dizkidate eskariak, bai ingurukoek, bai ingurukoaren lagunek.

Zeure ondorengoek jarraitu al dute zaletasun honekin?

Alaba bakarra daukat, eta oraingoz ez dauka honekin jarraitzeko itxura handirik. Adarra jotzea gustuko du, eta ondo jotzen du gainera, baina ez da horiek egiten saiatu, oraingoz. ■



Izena izen, "geurea"

Testua: **Erredakzioa**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Bertakoa eta anitza, eragileen eta herritarren bozgorailu, eta euskararen aterpe. Horrela defini daiteke euskarazko toki komunikabide bat. Horrela defini daiteke BALEIKE. Herriko gertaera garrantzitsuen berri eman du sortu zenetik, eta hain garrantzitsutzat jo ohi ez ditugun beste mila eta bat istorio handi eta txiki ere kontatu ditu. Gertaerak eta istorioak daude alde batean; bestaldean, bazkideak, irakurleak, erabiltzaileak, eragileak. Toki hedabide batek behar-beharrezkoak ditu horiek guztiak, eta herritarrek eta eragileek ere funtsezkoak dituzte BALEIKE bezalako herri komunikabideak beren lana, iritziak zein salaketak plazaratzeko, nahiz informatuta egoteko.

Eragileen sostengu, herritarren informazio iturri
Tokiko komunikabideen garrantzi hori argi dute, esaterako, Aitor Ramosek eta Itsaso Aldalurrek. Musikaria eta Dardara musika kolektiboko kidea da Ramos; Larraina euskara elkarteko eta abesbatzako kide eta Herri Eskolako irakaslea Aldalur. "*Baleike.eus* atarian komunitateko kide dira bai Herri Eskola, bai Larraina, bai abesbatza. Oso esanguratsua da hori; herrian gure berri emateko tresna sentitzen dugu BALEIKE", azpimarratu du Aldalurrek. "Eskaintzen zaigun tresna hori, komunikabide hori, euskaraz izatearen garrantzia ere nabarmendu nahi nuke", gaineratu du.

BALEIKEn berezitasuna zein den galdetuta, erantzuna argi du Ramosek ere: "Niretzat

berezitasuna da herrikoa bertakoa dela eta herrian geure sentitzen dugula. Bide egokia da Zumaiako kontuez eguneratuta egoteko. Esaterako, azken aldizkarian futbolari izandako herritar baten berri izan genuen, eta nik behintzat ez neukan haren arrastorik. Egunerokotasunaz informatzeaz gain, gertu dugun jendearen berri edo haien istorioak gerturatzen dizkigu BALEIKE". Herriko eragile ez ezik, aldizkariko bazkide ere bada Ramos.

Aldalurrek ere garrantzia eman dio bertakoa, tokikoa, izate horri. "Herritik eta herriarentzat sortu zen BALEIKE. Zumaiako talde txiki batek hasi zuen bidea, eta gero, handitzen joan da; dimentsio bat hartu du", azaldu du.

"Jaialdi edo emanaldi bat dugun bakoitzean, beti prest agertzen dira hori zabaltzeko, batez ere webgunean. Inoiz ez dugu ezezkorik jaso, beti egon dira laguntzeko, eta eskertzen da", iritzi dio Ramosek. Bide beretik mintzatu da Aldalur: "Uste dut funtzio soziala duela eta herritarrek erabiltzen dutela herriko berri jasotzeko nahiz emateko. Herriko eguneroko dinamikan martxan dagoen zerbait da, badauka bere tokia".

Urteetako lanaren poderioz egin du toki hori BALEIKEk zumaiarren egunerokoan, urratsez urrats, talde lanean eta batzearen indarrean sinetsiz; horregatik, etorkizuna GUKA proiektuaren aterkipean ikusten du BALEIKEk, funtsari eusteko: bertakoa eta anitza izatea, eragileen eta herritarren bozgorailu, eta euskararen aterpe. ■■■

GUKA GARA!



Itsaso Aldalur.

**"HERRIKO EGUNEROKO
DINAMIKAN BADU
BERE TOKIA
BALEIKEK, FUNTZIO
SOZIALA DU"**



Aitor Ramos.

**"NIRETZAT
BEREZITASUNA DA
HERRIKOA BERTAKOA
DELA ETA HERRIAN
GEURE SENTITZEN
DUGULA"**

Zentzuzko erabilera saretzen

Pantailaren gehiegizko erabilerarekin kezkatuta dauden herriko hainbat gurasok arazoari aurre egiteko taldea sortu dute. Oraindik ez dute izena erabaki, baina argi dute zein den beraien helburua: beren seme-alabek era kontziente eta kritikoan kontsumitzea gailu digitalak.

Testua: **Jabi Gonzalez Toston eta Maria Maya Manterola.** Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**



Eskuko telefonoa, ordenagailua, telebista, tableta... Pantailaz inguratuta bizi da gaur egungo gizartea. Are gehiago: esan liteke haiekiko menpekotasuna garatu dutela herritarrek. Bada, gehiegizko erabilera horrek kezkatuta, taldea sortu dute Zumaiaiko zenbait adingaberen gurasoek. Izena oraindik erabakitzeke dute, nahiz eta elkarren artean antolatzeko baliatzen duten Whatsapp taldeari Zumaia Pantailak deritzon.

Kontraesankorra eman dezake bide hori erabiltzea harremanetarako euren xedea aintzat hartuta, baina argi diote: "Gu ez gaude pantailen aurka, beraien erabilera kontziente eta kritiko baten alde baizik. Pertsonak pantaila kontrolatzea nahi dugu, ez pantailak pertsona".

Geroz eta goiztiarragoa ere bada lehenengo kontaktu hori pantailarekin; izan ere, haurrek txiki-txikitatik dituzte eskuetan. Kezkatuta dagoen guraso taldeko Jexux Ibarren esanetan, gurasoek erantzukizun zuzena dute horretan: "Guk jartzen dizkiegu pantailak aurrean lehenengo aldiz, eta askotan erosotasunagatik egiten dugu: afaria lasai prestatzeko telebista pizten diegu distrahituta egon daitezen eta ez gaitzaten molestatu, lagunekin kafe bat hartu nahi dugunean gauza bera, edo autoan bidaia luze bat egin behar dugunean... Horrelako ohiturek eragin handia dute aurrera begira".

Are gehiago ere badio Ibarrek: "Hezkuntza Saila ere ari da pantailak sustatzen; izan ere, eskolan bertan Chromebookak ematen dizkiete ikasleei LH4tik aurrera. Hasieran, ezin dituzte etxera eramane eta bertan erabiltzen dituzte, baina gerora, badute horretarako aukera bidaltzen dizkieten etxeko lanak egiteko. Haurrak ez dira ergelak, eta agindutakoak ez ezik, bestelakoak egiteko ere erabiltzen dute gailua". Iñigo Uribechebarria ere kezkatzen du hezkuntzan hartu den norabideak. Taldeko kidea izateaz gain, irakaslea ere bada Uribechebarria, eta "gehiiegizkoa" iruditzen zaio ikastetxeetan gaur egin dagoen pantaila kopurua. Horregatik, beharrezkoa ikusten du digitalizazioaren inbertsioa murriztea: "Ekoizpenaren alorrean beharrezkoa da digitalizazioa eta oso gauza aurrerakoiak lortu dira hari esker, baina ez dakit zenbatean den aberasgarria giza balioei dagokienez. Uste dut ondo legokeela digitalizazioaren aurrekontuari % 5 kentzea *desdigitalizazioari* eskaintzeko".

Arri Chamorro ere irakaslea da, eta COVID-19ak eragindako pandemian eskolak ematen jarraitzea ahalbidetu zioten pantailak. Dena den, hartu behar izan zituen "mina eman" zioten erabakiren bat edo beste: "Senarrak lanera kanpora joan behar izaten zuenez eta nik eskolak etxetik *online* ematen nituenez, jarri izan nituen bi alabak telebista aurrean isilik egon zitezen nik nire lana egin bitartean". Horrek barne gatazkak sortu zizkion arren, Chamorrok dio pandemia garaian "onuragarriak" izan direla pantailak "nerabeei ere lagunekin konektatzeko aukera eman dietelako". Edonola ere, argi du lehengora itzuli eta zuzeneko harremanak berreskuratzeko unea dela orain, pandemiak utzi duelako arrastoa. Horren harira, Ibarrek azaldu du bere 16 urteko alabaren jarrera nabarmen aldatu dela pandemiaren geroztik: "Lehen eskolako gauzak



Goian, Amaia Miner.

Eskubiko orrian, Iñigo Uribetxebarria.

"TALDE KONPROMISOEK INDARRA EMATEN DUTE MUGIKORRA EMATEKO ADINA ATZERATZEKO"

GURASOAK DIRA EREDU IZAN BEHAR DUTEN LEHENENGOAK, DENEK BAITUTE 'BIRUSA' BARRUAN

egiteko erabiltzen zuen ordenagailua, eta zentzuzkoa zen erabilera. Pandemian, ordea, Internetek ematen dizkion aukera gehiago ezagutu ditu, eta harrezkero, askoz gehiago erabiltzen du".

Hain justu, pandemia amaitu eta normaltasunera itzulitakoan hasi ziren guraso taldeko kideak elkartzen eta neurriak hartzen. Dena den, Amaia Minerrek azaldu duenez, "kezka pandemia aurretik" bazuten jada. Lanketa konfinamendutik ateratakoan hasi ziren egiten, ordea, eta, zentzu horretan, azaldu dute ikastetxeka antolatzen direla; hau da, herriko ikastetxe bakoitzeko guraso elkarteek nahiz Zumaian bizi arren seme-alabak inguruko herrietan matrikulatuta dituzten gurasoek nork bere aldetik jarduten dute eraginkorragoak izateko. Bestela talde handiegia osatuko lukete, eta horrek antolaketa zailduko lieke. Edonola ere, badago guztien arteko gutxieneko koordinazioa. Elkarren berri dute, eta badakite zer ekintza ari den garatzen bakoitza. Gainera, ikasturte amaieran elkartu egiten dira balorazioa egiteko

eta bizipenak partekatzeke.

Formakuntza eta taldearen indarra

Aipatutako lanketa egiteko, –hau da, pantailen erabilera egoki eta on bat zein litzatekeen erakusteko eta arriskuez ohartarazteko– hainbat formakuntza saio egin dituzte ikastetxeetan ikasleekin, irakasleekin eta guraso elkartearen barruan. Izan ere, asko dira pantailek sor ditzaketen arazoak: "Ikusmenari lotutako gaitzak, hiperaktibitatea eta kontzentratzeko zailtasunak lo faltagatik, ziber-bullinga, eta beste asko", zerrendatu dute gurasoek. Formakuntza lan horretan, gaian aditua den Miren Ros zarauztarra izan dute bidelagun eta, diotenez, antzeman dute jarrera aldaketarik seme-alabengan.

Saio horiek egiteko udalaren laguntza ere izan dute. "Udalak badaki lanerako gogoz gaudela, eta harengana jo genuenean, hasieratik agertu zen gure proiektuaren alde. Laguntzeko prest daudela adierazi digute, eta formakuntzaren zati bat ere ordaindu digute", azaldu du Chamorrok. Horren harira, Ibarrek zehaztu du herena izan dela Zumaia Udalak finantzaturakoa, eta eskertuta dagoen arren, laguntza "handiagoa" izatea nahiko luke: "Gurekin formakuntza egin duen Mikelek, adibidez, Donostian eta Irunen ere egin ditu saioak. Bi hirietan bertako udalak izan dira eskoletan saioak antolatu dituztenak, baita osorik ordaindu ere. Horrez gain, Azpeitiko Iraurgi ikastetxeko lagun bati zertan ari ginen azaldu nionean, beraiek ere mugitzen hasi ziren, eta herriko beste bi ikastetxeekin batera proposamen bateratua helarazi zioten bertako udalari. Horrek, egindako lana eskertu, eta aurrerantzean ardura osoa beregain hartuko zuela adierazi zien. Zumaian gu izan gara guztia antolatzeaz arduratu garenak".

Formakuntzaz harago, bestelako ariketak ere egin dituzte, eta horien inguruan ere hitz egin dute. Aurrera eraman zuten lehenengoa nolakoa izan zen azaldu dute, esaterako: "Seme-alaben adinaren arabera, hainbat mezu zabaldu genituen herriko guraso guztien artean Miren Rosek prestatutako bideo edo testuekin hausnarketa bultzatzeko. Bi astetik behin bidali genituen, eta bakarka edo seme-alabekin bete behar izan zituzten erronkak gurasoek. Hitzaldi ireki batekin eman genion amaiera. Horrela lortu genuen gurasoek gaiaz hitz egitea, eta nahikoa arrakasta bada guretzat", azaldu dute Chamorrok eta Minerrek.

2021-2022ko ikasturtearen bukaeran, berriz, gurasoentzat berebiziko garrantzia duen proiektua jarri zuten martxan: konpromisoena. "Lortu nahi genuena zen haurrek beren lehenengo eskuko telefonoa izateko adina ahalik eta gehien atzeratzea. Horretarako, gurasoei eskatu genien konpromisoa hartzeko irailera arte ez erosteko. Azken finean, taldeak indarra ematen dizu, zeren askotan gogoz kontra ematen diegu mugikorra seme-alabei. Ez diegu eman nahi, baina lagunek badute, eta ez dugu nahi gureak azkenak izatea edo ez duten bakarrik", zehaztu du Minerrek.

Mugak

Hari beretik, Uribetxebarriak dio sakelakoak eta Internet erabili ahal izateko adin mugak zehaztu beharko liratekeela, beste gauza jakin batzuentzat "oso argi adierazita" dauden bezalaxe; "autoa gidatu ahal izateko, erretzeko edota alkohola edateko", aipatu ditu, besteak beste. Chamorrok, bere aldetik, gaineratu du adituek diotela "adin txikikoek 16 urte bete baino lehen" ez luketela mugikorrik izan beharko. Dena den, egungo testuingurua aintzat hartuta, Chamorrok dio berak alabei eskuko telefonoa emateko adina 14 urtera arte atzeratzea lortuko balu, gustura legokeela.

Mugekin lotuta, gaur egun gailu gehienek beren ezarpenetan eskaintzen duten guraso kontrolak erabiltzearen aldekoa da Ibarra. Are gehiago, "beharrezkoak" direla dio: "Liskarrak ekiditen ditu, zeren, seme-alabek egunero egiten dute ahalegina ezarri diezun muga zabaltzeko ordu gehiagotan mugikorra erabiltzeko eta handia da zureari eusteko egin behar duzun esfortzua. Guraso kontrolekin gailuak berak jartzen ditu mugak. Horiek eragin diezaiekete erabilpenaren orduari edo kontsumitutako Interneteko datu kopuruari, besteak beste".

Bestalde, guraso taldeko kideen esanetan, ezinbestekoa da seme-alabei mugikorra eman aurretik haiekin lanketa egitea ere, baita ondoren jarraipena ematea ere. Baina aurretiazko lanketa horretan jarri dute harremana. Era berean, diote eskuko telefonoak ezin duela oparia izan: "Kontratu baten modukoa izan behar du, nolabait, umeek argi izan dezaten baldintza jakin batzuen pean





Goian, Arri Chamorro.

Eskubiko orrian, Jexux Ibarra.

erabil dezaketela. Horiek orotarikoak izan daitezke: lagunekin geratzeko etxean erabiltzea baimentzea, kalera eramateko debekua jarrita; edozein momentutan zuk mugikor hori hartzeko eskubidea izatea gailua zertarako erabili duen ikuskatzeko... Azken batean, argi izan behar dute gurasook garela mugikor horren gaineko agintea dugunak".

Ohitura aldaketa

Halaber, gurasoek argi dute eurak direla seme-alabentzat eredu izan behar duten lehenengoak; izan ere, adin txikikoetan ez ezik, helduengan ere nabarmena da pantailekiko adikzioa, batez ere sakelakoarekiko. "Ez gara umeez bakarrik ari, denok dugu birusa barruan", iritzi dio Uribetxebarriak. Horregatik, uste du beharrezkoa dela ohiturak aldatzea eta "besteekiko konfiantza berreskuratzea". Horren harira, azaldu du gaur egun hitzorduak jada ez direla ordu eta toki zehatzetan egiten: "Jendea pixkanaka agertzen da mezua idatzi edo deia egin ondoren. Horrek eragiten du momentu oro mugikorra begiratzeko

aritu behar izatea, eta antsietatea eragiten du". Ildo beretik, Chamorrok dio batek baino gehiagok kargu hartu izan diola deia edo mezua denbora luzean erantzun ez diolako. Gainera, erantzun gabeko mezu horiek gehienetan "memelokeriak" izaten dira, bere hitzetan. Ildo beretik, gurasoek azaldu dute jasotako formakuntza saioetan hezitzaileen lehenengo galderetakoa zela ea etxetik irtetea eskuko telefonoa etxean ahaztuz gero, buelta ematen ote zuten bila joateko. "%99k erantzuten dugu etxera bueltatzen garela", zehaztu du Ibarra. Era berean, mugikorrarekiko menpekotasunaz askatzeko ariketak ere proposatu dizkiete saio horietan: "Ostiral gauetik igandera arte, asteburu osoan itzaltzea proposatu ziguten, sekulako askatasuna sentituko genuelako". Hala ere, gurasoak kontziente dira "oso zaila" dela gaur egun hori lortzea. Horregatik, Uribetxebarriak uste du pixkanaka egin behar direla urratsak: "30 minutu aski lirake hasteko, ikusi beharko genukeelako ea horretarako gai garen".

Belaunaldi arteko arrakala ere islatzen dute pantailek ekarritako ohitura aldaketa horiek. Ibarra oroitzen du, esaterako, bera gaztetxoa zela egongelako telebistaren bueltan elkartzen zirela etxeak telebista saio bera elkarrekin ikusteko. "Gaur egun, ordea, seme-alaba bakoitza bere gelan sartzen da atea itxita, eta ez dakizu zertan ari den. Atea zabaldu eta ordenagailu aurrean ikusten duzu. Gainera, atea ireki bezain pronto klik azkar bat egin du ordenagailuko saguan, eta zertan ari den ikustera gerturatzen bazara berandu da dagoeneko, ezkutatu duelako".

Itxaropena badago


Horregatik guztiagatik, pantailen zentzuzko erabilera eta "gailu elektronikoei dagun ohituen gaineko hausnarketa" da

Zumaiako guraso taldeak bultzatu nahi duena, arestian esan bezala, ez baitaude haien aurka. "Gure jardueren zabalpenerako ere erabiltzen ditugu sare sozialak, adibidez. Bide azkarrena da eta eraginkorra ere bai askotan, jendearengana errazago iristen delako", aitortu dute. Antolatutako jarduera horien jarraipenari lotuta, kritiko ere badira; izan ere, kezka orokorra den arren, parte hartzea txikia izaten da gero: "Jendeak esaten digu interesa duela eta etorriko dela hitzaldietara, baina gero herriko gurasoen %20 baino gutxiago dira etortzen direnak. Ez da erraza jendearengana iristea".

Edonola ere, itxaropentsu ere badira, batez ere txikienekin, zeren eta DBHko ikasleen guraso asko etsita ikusten dituzte. "Oso gustura gaude LH6ko ikasleengan antzematen ari garen aldaketarekin. Irudipena dugu pixkanaka bada ere lortzen ari garela haurrei lehenengo mugikorra emateko pauso hori atzeratzea. Aldi berean, gaiarekiko kezka eta horrek dakarren hausnarketa kritikoa ere areagotzen ari da, gainera. Ez dakigu goia jo dugulako izango ote den, eta, ondorioz, atzera itzultzen ari garen, baina uste dugu duela hiru edo lau urte baino hobeto, behintzat, bagaudela", azpimarratu dute.



ekainak 10, larunbata
emakumeon* etxeko
uda aurreko festa



raixta
edo elkarrekin piztu duguna



"Betetzen gaituzten gauzek ez dute preziorik baina balioa dute"

TELMO LAZKANO IRAKASLEA

Donostiako Peñaflorida Institutuko irakaslea da Telmo Lazkano (Zumaia, 1994). Teknologiaren eta norbanakoen harremana aztertzen dihardu azken hiru urteotan, eta horren inguruko proiektu bat ere egin du ikasleekin: *No Phone Challenge*. Urrian liburua kaleratzekoa ere bada.

Nola sortu zitzaizun gaiarekiko kezka?

Batetik, akademikoki ikertzen hasi nintzen sare sozialen inguruan. Ilobak 2 urte zituen, eta negarrez hasten zenean sakelakoa eman eta magia, isildu egiten zen. Ikasleei galdetu nien zenbat denbora pasatzen zuten eskuko telefonoarekin, eta erakutsi zidaten bost-sei ordu igarotzen zituztela batez beste DBH 4. mailako ikasleek. Asteburuetan igo egiten zen ordu kopurua. Eskolan sei bat ordu pasatuz gero, eta lotan zortzi, kalkuluak ez zitzaizkidan ateratzen.

Eta kezka horri tiraka egin zenuen lanketa nerabeekin.

Bai. Peñafloridan ebaluazioaren amaieran film bat ikusi ohi dute ikasleek, eta *El dilema de las redes sociales* dokumentala jarri nien. Gero, hamar bat galdera erantzuteko eskatu nien beren artean gogoetatu bitartean. Ondorioztatu genuen produktu batengatik ordaintzen ez baduzu, zu zeu zarela produktua.

Azken finean, diruz ez baduzu ordaintzen, nola ordaintzen duzu? Horren

handiak diren enpresek nola egiten dute dirua, doan eskainita? Bizikleta batek ez dizu erabiltzea eskatzen, baina honek bai. Zer teknika psikologiko daude horretarako?

Galdera horiei erantzunez ezagutza bat eraiki genuen, eta nik uste dut garrantzitsua dela azpimarratzea ezagutza horretan protagonistak ikasleak beraiek zirela.

Eta gero, zer?

Lehen fase horretatik iritzi kritiko bat jorratzera igaro ginen. Matematika erabili nuen horretarako, eta galderen bitartez gogoetatzera bultza. Galdetu nien, esaterako, ea filtroak debekatu beharko lirartekeen. Ezetz erantzuten zuten, baina galdetzen banien gurasoei selfie bat bidaltzerakoan filtroa erabiltzen duten, ezetz esaten zidaten. Benetan ezagutzen ez gaituen norbait txunditzeko al dira? Edo, harago joanda, nork dio hori polita dela?

Galdetu nien ea zer izan edo eduki nahi zuten handitan. Hori dena eros liteke, baina denbora ez. Mantsio bat eros liteke, baina familia bat inoiz ez duzu erosiko. Sexua eros dezakezu, baina maitasuna ez dago salgai. Eta medikuaren zerbitzuak eros ditzakezu, baina osasuna, ez. Benetan betetzen gaituzten gauzek ez dute preziorik, baina izugarritzko balioa dute.

Idazlan bat egin zuten horren guztiaren inguruan,

eta hirugarren pausoa ematea erabaki nuen.

Astebetez sakelakoak baztertu zenituzten norbere borondatez.

Bai. Eta bitartean eguneroko bat idatzi genuen, eta hor jaso esperientzia. Hori da oihartzun gehien izan duena.

Abstinentzia sintoma garbiak izan zituzten lehen hiru egunetan: gehiago jaten hastea, lo egiteko zailtasunak, pentsamendu intrusiboak, antsietate krisi txikiak, urduritasuna... Gero, ikus daiteke aldaketa bat izan zela laugarren eta bostgarren egunen artean, eta askoz ere lasaia go zeuden. Azken aurreko egunean, batzuk esan zidaten ez zutela sakelakoa berreskuratu ere egin nahi. Beste batzuk beldur ziren aurreko dinamikan erortzeko.

Presenteago egongo zineten, ezta?

Bai. Batzuk kontatzen zuten aiton-amonengana bisitan joan eta inoiz ez bezala konektatu zutela, esaterako. Edo ilunabarra lagun batekin ikustera joan, eta lagunak grabatu bitartean, disfrutatuta egin dutela ikusten. Sakelakoarekin, bizi beharrean, besteei erakusteko bizi gara. Kontzertuak sakelakoaren pantailan ikusten ditugu, eta jaten hasi aurretik, jakiei argazkiak atera. Otoitz berria deitzen diot nik. Kate bat



moztu zuten, askoz ere lasaiago eta zoriontsuago sentitzen ziren. Denbora jarduera osasuntsuetan inbertitzen hasi ziren: irakurtzen, mendira joaten, igerilekura... Bukaera eman genion hausnartuz nola izan dezakegun harreman osasuntsu bat mugikorrarekin. Teknologia hauek geratzeko etorri dira, eta ez dut uste konponbidea debekua denik; ondo erabiliak oso aberasgarriak izan daitezke, baina harreman osasuntsu horretan arakatu beharra dago.

Eragina izan al du geroa lanketa horrek?

Bai. Aurrekoan elkartu nintzen horietako batzuekin, eta erabilera osasuntsuari eusten zioten. Irakaslea naizen aldetik, uste dut erreminta kaxa oso aberats bat beharrezkoa dela, eta gero ikasgela bakoitzean irakasle bakoitzak ikus dezala zer tresna erabili.

Zuk zeuk garatu duzu proiektua, kasu honetan. Beharrezkoa ikusten duzu irakasleen gain erori beharrean, lanketa nolabait sistematizatzea?

Hiritar konpetenteak sortzea da hezkuntzaren helburua, eta gizarte *teknologizatu* batean bizi garen neurrian, teknologian hezi behar ditugu haurrak. Teknologiaren heziketa horretan zer, noiz eta nola egiten ari garen hausnartu beharko genuke. Sistematikoki landu behar den gai bat da



mugikor adimendunena, sistematikoki eragiten duelako gure txikiengan.

Inguruan gaiarekiko kezka sumatzen al duzu?

Bai, badago. Denbora librean formazioak ematen ditut ikastetxeetan eta guraso elkarteetan. Kezka nabaria da, eta ez sakelakoarekin pasatzen duten denborarekikoa soilik, baita horrek errazten dituen buru gaixotasunekikoa ere. Gai askok banatzen gaitu, baina honek beste ezerk ez bezala batzen gaitu: txikiengizateak, alegia. Gaur egun asko baldintzatzen du ongizate hori sakelakoaren erabilerak.

Gai honen inguruan gehiago arakatzeko gogoz garatu al zara?

Hiru urte daramatzat ikertzen, ia karrera bat adina... Maila akademikoan artikulatuak idaztea pentsatu nuen, baina bide eraginkorragoak bilatu nahi nituen jendearengana iristeko. Hedabideena izan da bata, eta liburuarena bestea. Urrian kaleratuko dugu zeresan nahikoa emango duen liburua, sakelakoaren kontu honetatik harago doalako. Maitane Ormazabal

psikologoarekin ari naiz idazten azkenengo urte honetan. Psikologoekin, psikiatrekin, Gizakia Helburuko zuzendariarekin eta sortzailearekin, pedagogoeekin... elkartu gara, eta liburuak tresna praktikoa izan nahi du gauden hamarkadan. Gaur egungo nerabeen egoera ulertzeko balioko du buru gaixotasunen ikuspegitik, eta zati handi bat eskainiko diegu sare sozialei.

Liburuari buruz zer kontu dezakezu?

Hasiera batean azalduko dugu gizarteak nola eragiten duen norbanako bakoitzaren nortasunarengan. Nerabezaroan du eragin gehiena gizarteak, eta aktore desberdinak daude hor: gurasoak, irakasleak, kirola, eskolaz kanpoko jarduerak, lagunak... Guk aktore horiek geneuzkan, baina orain berri bat dago, errealitate birtuala. Hortik jaioz da hurrengo zatia: nola eragiten ari den errealitate birtual hori nerabeen artean. Ikusten da nerabezaroa neurologikoki, identitate eraikieraren ikuspuntutik eta baloreen eraikierarenetik. Eraikuntza horretan sare sozialek nola eragiten duten aztertzen dugu gero. Hor jaso ditugu azken hiru urteotako ondorioak. Adibidez, jakinarazpenen soinua nola dagoen egina erakargarria izateko.

Hurrengo atalean aipatzen ditugu sakelakoaren erabilera

"LIBURUAK TRESNA PRAKTIKO BAT IZAN NAHI DU GAUDEN HAMARKADAN"

goiztiarrak erraztu ditzakeen buru gaixotasunak; *erraztu* beharrean, *sortu* aditza ere esango lukete ni baino profesionalagoak diren batzuek. Etxez etxeko zerbitzuan, esaterako, 2009ra arte % 20 edo 30 ziren buru gaixotasunak. Pandemia baino lehen, jada bikoiztu egin zen datu hori.

Pandemia baino lehenagotik zetorren joera hori, beraz.

Bai, pandemiak berak dinamitatu zuen lehendik zetorren dinamika. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, esaterako, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotza ez naturalen artean, beren buruaz beste egitea da kausa nagusia. Sare sozialak ez dira erantzule, puzzle oso konplexu baten piezetako bat baizik. Liburuaren hurrengo atala da beste piezak zeintzuk diren aztertzea; buru gaixotasunen erroetara jotzen dugu. Azken atal bat dago guztiz praktikoa dena, eta plazaratu nahi ditu tresna ezberdinak orekatzeko eta sakelakoaren inguruan har daitezkeen neurriak proposatzen ditu. Azpitesia litzateke Paleolitoko emozioak ditugula, Erdi Aroko instituzioak, eta Jainkoen pareko teknologia. *Nerabeen garrasia* izenpean plazaratuko dugu.

Nori zuzendua dago?

Nik uste dut edukiarengatik helduei zuzenduta dagoela, 12 urteko batek ez duelako ulertuko, eta gainera, gaizki-ulertuak egon daitezkeelako. 16 urtetik

gorako norbanakoei gomendatuko nieke irakurtzea, baliagarria izango da-eta oraintxe murgilduta gauden dinamika honetan laguntzeko. Baina, batez ere, guraso eta hezitzaileei zuzendua dago.

Buru gaixotasunak errazten dituela aipatu duzu.

Teknologiak zenbateraino urrun gaitzake errealitatetik?

Ikaragarri. Zuk telefonoarekin denbora asko igarotzea zer da, mendekotasun-diseinu bat izatearen kausa? Drogekin parekatuta, izan daiteke zuk hori kontsumitu duzula, eta hor erori zarela. Eta bestetik, izango litzateke ea ondorioa den erabilera hori. Txikitatik zer ikusi du gurasoen inguruan? Emozioak anestesiatu nahi ditugunean pantailetan murgiltzen gara errealitate hori ahazteko. Txupete digitala deitzen diogu horri. Norentzat da? Beraientzat, ala gu bakean uzteko? *Atsegin dut*-en bilaketan zaude? Zertarako behar duzu halako errekonozimendu sozial puztu eta artifizial bat?

Drogekin ere gertatzen da: zerbait kontsumitzeak plazera sentiarazten dizu, baina gero, jabetzen zarenean txarra dela eta hala ere kontsumitzen duzunean, zerbait dago ez zaituena hortik ateratzen uzten. Eta zerbait hori, normalean, horretara bultzatu zaituena da. Hori konpondu artean, hor jarraituko duzu.

Atsegin dut-en dopamina dosiarekin hor zaude, edo drogekin, duten osagai

kimikoak hor mantentzen zaitu. Baina askotan, haratago begiratu eta aztertu behar da zer faktorek eraman duen horra.

Aipatu dituzunak zer dira, gizarteak oro har jasaten dituen faktoreak, ala pertsonalak?

Jasotako inputen ondorio da norbanakoa. Adibidez, Danimarkan %19ko gizentasun tasa dago; Kentuckyn, %40koa. Irakurketa arrunt bat egin genezake, eta esan kentuckyarrek genetikoki gizenagoak izateko dohain berezi bat dutela, edo gustuko dutela gizenak izatea. Aldiz, Danimarkan, kontrakoa: genetika ona dute, asko zaintzen dira, eta norbanako bakoitza ikaragarri ona da bere osasuna zaintzen.

Aztertu beharko genuke zer irisgarritasun maila dagoen Danimarkan, non toki guztietara bizikletan hel zaitezkeen, eta gobernuek sustatzen dituzten elikagai osasuntsuak supermerkatuetan sagarrak musutruk jarrita. Kentuckyn, justu kontrakoa: kotxea behar duzu leku guztietara iristeko eta *fast food* delakoa sustatzen da. Adibidez, Norwegian 2019an lege bat atera zuten, eta kotxeko gidabaimena ateratzeko formularioan aukeraturata agertzen zen istripuan zenduz gero zure organoak emateko laukitxoa. Aske zara kentzeko, baina lehenetsita dago baiezkoa. Aldaketa txiki



horren ondorioz puztu zen izugarri organo emaille kopurua.

Beste adibide bat da 1970eko hamarkadako esperimentuena. Sagu bat kaiola batean sartu zuten, eta ura eta ura heroinarekin jarri zizkioten; gaindosiarekin hil zen. Vancouverreko Bruce K. Alexander doktoreak etxegabeko asko ikusten zituen heroina kontsumitzen, eta ohartu zen denek bakardadea eta aterpe falta zituztela komunean. Sagu hura ere bakarrik zegoen. Hankaz gora jarri zuen esperimentu sorta bat egin zuten, *Rat park* bezala ezagutzen dena: sagu mordoxka bat sartu zituzten kaiola handi batean, nahi beste janarirekin, jostailuekin, sexua izateko aukerarekin, finean, sagu batek bere behar psikoemozionalak asetuta izateko behar zuen guztiarekin, baina baita heroina zuen urarekin ere. Kontsumitzen zuten, baina ez zen sagu bakar bat ere hil. Are gehiago, kaiola bakartuetan zeuzkaten sagu kontsumitzaileak hartu, eta kaiola handira sartutakoan, besteen antzeko kontsumo mailara igarotzen ziren.

Inon praktikan jarri dute?

Portugalen. Herrialde horretan 2000. urtean biztanleen %1a heroinazalea ziren. Pentsa zer nolako arazoa zen, aurkariak ziren alderdi politikoek bat egin baitzuten ondorengo

kanpainan.

Esperimentu horietatik jaiotako tesia aplikatu zuten. Adikzioa sortzen zien substantzia hori uzteko neurriez gain, horretara eramane duen testuingurua aldatu beharra dago. Ordura arte kriminalizazio politika bat zegoen Portugalen. Mezu hori aldatu egin zen hedabideetan ere. *Maite zaituztegu, bueltan nahi zaituztegu* mezua zabaldu zen. Indar polizialean inbertitu ordez, pertsona horiek desintoxikazio prozesu batean sartu, eta bestetik, mikrokredituak sustatzeko programa nazional bat sortu zuten. Hau da, heroinazale mekaniko hori hartu, zeina banandua izan den eta etxetik bota duten, eta tailer batera eramane, eta kontratatuz gero, haren soldata erdia gobernuak finantzatu. Bizitza proiektu bat eman. Oso denbora gutxian jaitsi ziren heroinazaleak. Arazoa pertsona askorengan ematen bada, sistema da sendatu beharrekoa, ez pertsona. **Gobernuak eta botereetsuek jendarte otzana behar dutela uste duzu?**

Esango nuke askatasuna arriskutsua dela ezagutzarik gabe. Ezagutzak egiten du askatasuna: batez ere, ideologia handikerietako trintxeretatik kanpo, umiltasun eta ezjakintasun baten leihotik eraikitzen den ezagutza, begirada kritiko batez. Nik nire borondatea ezartzeko asmoa badaukat, errazagoa egingo zait gizarte ezjakin batean. Pertsona arrazionalak izan nahi

baditugu etorkizunean, orain hasi behar gara horretan. Zenbat eta gutxiago jakin, errazago manipulatzeko da pertsona bat, eta sistemikoki ere gerta daiteke hori. Ez duzu erakutsi behar zer pentsatu, baizik eta pentsatzen. Hausnartu beharko genuke zer norabide hartzen ari den hezkuntza zentzu horretan.

Formazioetan kezkatuta etortzen zaizkit gurasoak, baina mezu lasaigarria bidali nahiko nuke. Normala da. Gu heziak izan garen moduak baldintzatzen du guk hezteko dugun era. Antzeko jokatu dezakegu, edo alderantziz. Aingura kognitiboa deritzo psikologian. Gure gurasoek ez dute teknologiarekiko aingura hori, ez dute erreferentziarik, eta normala da noraeza. Eta gainera, historiak erakusten du horrelako tresna garrantzitsuak plazaratzen direnean egoera ezegonkortzen dela baina horrekin bizitzen ikasi dugula. Inprenta sortu zenean ere gertatu zen: desinformazio ikaragarriak zabaldu ziren, eta gerrak sortu. Hortik gizarteak ikasi zuen arau batzuk ezarri behar zirela, eta kazetaritza unibertsitateetan sartu zen. Irratiarekin gauza bera gertatu zen, Alemania nazian eguerdian irratia entzutea derrigorrezkoa zen. Eta hortik ikasi genuen botere betearazle batek ezin duela hedabide bat kontrolatu, zuzenean, behintzat. Orain, pentsatu nahi dut ekar ditzakeen abantailak hartu eta albo ondorioak murrizten ikasiko dugula. ■



Turismoa uxatzen zuen horma eraisten

Esti Irureta, Zumaiaiko Udaleko turismo teknikaria

Azken bi hamarkadetan turismoak herrian izan duen hazkundearen lekuko ezin hobe da Esti Irureta. 2002tik Zumaiaiko Udaleko turismo teknikaria da, eta herriak bizi izan duen bilakaeraren partaide ere izan da Kantauri plazako Turismo Bulegotik.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Karmele Gorroño**.

Astelehenetan itxita egoten da Turismo Bulegoa bisitarientzako, eta astelehen bat aukeratu du kazetariak Esti Irureta Ostolazarekin (Zumaia, 1976) lasai hitz egiteko. Mostradorean ez dago inor galdezka ea ditzosozko iturrira nola joaten den edo txukun eta prezio onean jateko leku aproposik ba ote dagoen herrian. "Gauzak aldatu dira hemen ere, eta bisitariak etxeko lanak eginda etortzen dira. Lehen informazioa ematen genuen; orain, esan dezakegu gehiago aholkularitza lana egiten dugula", kontatu du Iruretak solasaldian zehar.

Iruretak gaztetatik garbi zuen hizkuntzen mundura edo turismora bideratuko zuela bere bizitza. "Ikasketak Zumaiaiko Institutuan egin nituen, eta ikasten ari nintzena –administrazio laguntzaile ikasketak – ez zitzaidan batere gustatzen. Ingelesarekin zerikusia zuen zerbait ikasi nahi nuen. Hori, edo turismoa". Institutuko ikasketak bukatuta, urtebete egin zuen atzerrian, Edinburgon (Eskozia), "lanean eta ingelesa ikasten. Hotel handi batean egin nuen lan, oheak eta egiten, eta ezkontza handiak zerbitzatzen. Jatetxe indiar batean ere egin nuen lan, baita agentzia baten bidez beste hotel batzuetan ere".

Eskozia eder eta euritsuan zela konturatu zen Irureta turismoa ikasi nahi zuela, eta Euskal Herrira itzuli zenean Deustuko Unibertsitateak Donostian duen fakultatean hasi zen karrera ikasten. Gogoan du geografia, historia eta artea, kontabilitatea, ostalaritzako eta hotelen funtzionamendua, nahiz hizkuntzak erakusten zituztela. "Praktikak egiteko aukerak ere izaten genituen. Bidaia agentzia batean egin nituen praktikak, gutxien gustatzen zitzaidana hori zen eta. Hala, berretsi nuen benetan zer ez zitzaidan gustatzen".

Bidaia agentzietan lan egitea ez zuen gustuko; bai, ordea, bidaiatzea, txikitan aukera handirik izan ez bazuen ere. "Udalekuak baldin bazeuden, edo kanpora joateko aukeraren bat, ni prest izaten nintzen beti", gogoratu du. Beste kultura batzuetako jendearekin nahastea gustatzen zaiola dio. "Bidaiatzeko modu konkretu batzuk gehiago gustatzen zaizkit besteak baino – adibidez, kruzeroak ez ditu gustuko –, baina urteko sasoiaren arabera, edo motibazioaren arabera, turista mota batekoa naiz. Batzuetan gustatzen zait balneario batera joan eta lasai egotea, eta beste batzuetan, asko gustatzen zait hiriak ezagutzea, asko gustatzen zait herri txiki politak bisitatzea". Turismoan lan egiten duen jendeaz



irrimarra



pentsaera okerrak daudela irizten dio. "Jendeak pentsatzen du turismo arloan gaudenok gehiago bidaiatzen dugula, eta justu kontrakoa da. Jendeak bidaiatzeko aukera duenean gu lanean gabilta. Orain, urtean zehar, ihesaldi motzak egiten ditut, aukerarik ez dudalako luzeagoak egiteko".

Karrera amaituta, berriro ere atzerrirako apustua egin zuen Iruretak, oraingoan Frantziara. "Karrerako lehen urtea bukatu nuenean Frantziara joan nintzen haur zaintzaile lanera. Frantsesa ikasi nuen karreran, baina hizkuntza ez nuen artean dominatzen. Ez dut inoiz eduki lotsarik hitz egin eta akatsak egiteko, hizkuntza bat horrela ikasten da eta. Gero, karrera bukatu nuenean Montpellierrera (Okzitania) joan nintzen, eta han zortzi hilabetez egon nintzen". Denbora horretan frantsesa ikastea errematatu zuen.

Frantziatik jada lan kontratu batekin itzuli zen turismo teknikaria. "Zelai Hotela ireki berri zuten Zumaian, eta herrira itzultzean han hasi nintzen lanean. Oso gustukoa nuen lana, eta urtebete egin nuen han". Gustura jarraituko zukeen hotelean lanean, baina beste ate bat zabaldu zitzaion, eta ezin izan zion eskaintzari muzin egin. "Eusko Jaurlaritzaren Spri taldeak nazioarteko turismo saila zuen, eta han hasi nintzen lanean. Euskadiko turismo informazioa eramaten nuen nazioarteko turismo azoketara, batik bat Europakoetara. Ia urtebetez aritu nintzen han lanean, Bilbon. Baina, familia izan nahi nuen, ez nuen berandura arte zain egon nahi familia izateko. Han geratuta lan aukera zabalduko zitzaidakeen; gustukoa nuen, baina hilero kanpoan nintzen azoketan. Egundoko penarekin, baina utzi egin nuen", kontatu du.

Herrian ordurako sortua zen turismo teknikari lanpostura aurkeztu zen Iurreta, eta bera aukeratu

zuten. "Izugarrizko erronka iruditu zitzaidan. Herriarentzako ahal nuen turismo eredu egokiena sortzeko edo egiteko aukera horrek asko motibatzen ninduen". Ordutik da Zumaiaiko turismo teknikari. Eredu hori aplikatzerakoan "inoiz beldurrik ez" du izan. "Kristoren zortea izan dut azken 20 urteetan udalean izan diren alderdiek –eta alderdi desberdinak egon dira agintean – nik proposatutako hori babestu dutelako".

Turismo sailean lanean hasi zenean, Kaminero inguruan halako horma birtual bat sumatzen zela gogoratu du teknikariak. "Turistak Zarautzera eta Getariara joaten ziren, baina Zumaiaraino ez ziren heltzen. Turismoaren dinamizazio lan horrekin Zumaia mapan jarri nahi izan genuen". Hala, 2002. urtean bertan bisita gidatuak eskaintzen hasi zirela kontatu du. "Gero [Euskal Kostaldearen] Geoparkeak eskainiko zituen

Esti Irureta Ostolaza

- **Adina:** 47 urte.
- **Ikasketak:** Turismo gradua.
- **Lanbidea:** Udaleko turismo teknikaria.
- **Turismo teknikaria ez banintz...**
Gustatuko litzaidake hotel bat zuzentzea, haur txikien hezkuntzan lan egitea, aholkularitza zerbitzu batean aritzea... Gauza asko, baina uste dut toki egokian nagoela.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...**
Dantzak asko betetzen nau. Oso soziailea naiz, eta jendearekin egotea gustatzen zait. Bidaiatzea, egunpasak egitea.

bisiten hastapenak izan ziren horiek". Urte gutxira, jarraian, Zumaia mundu mailan ezagutera eraman zuten beste mugarri batzuk izan zirela dio Iruretak: "2005. urtean Algorri Interpretazio Zentroa zabaldu zuten, eta 2009an [Deba eta Zumaia arteko itsasertza] biotopo babestu izendatu zuten. Hor hasi ginen flyscharekin eta geologiarekin zerbait ezberdina eskaintzen". Bide horretan, 2008an, Flyscharen Ibilbidea aurkeztu zuten Mutrikurekin eta Debarekin batera, "eta urte gutxira, 2010ean, geoparkea izateko eskaera aurkeztu genuen. Normalean, zientzia edo ingurumen sailetatik egiten dira eskaerak, baina gure kasuan turismo sailetik eskatu zen, eredu jasangarria landu dugulako betidanik".

Getaria eta Zumaia banatzen zituen horma eraitsita, turistak Zumaiara heltzen hasi ziren. Igoera konstantea izan zela du gogoan Iruretak. "Pixkanaka gora egitea normala da, dena zegoen eta egiteko". 2016an, baina, turisten eta bisitarien uholdea izan zuen Zumaia. Horrek harritu egin zuela onartu du Iruretak. "Halako igoerak digeritzea zaila egiten zaio herri bati, eta hor

agertu ziren turismo masiboaren aurkako mezuak ere. Ez dut esango herria turismoaren aurka jarri zenik, baina kezka bat sortu zuen". Momentu aproposa zela ikusi zuten Turismo Plana garatzeko. "Ez zen turismoa ekartzeko edo modeloa aldatzeko plan estrategikoa, ez; herritarren eta turisten arteko elkarbizitza bermatzeko plana zen".


2016ko jende andana ez da errepikatu ondorengo urteetan, baina teknikaria ez da beldur: "Nik ez dut uste jende faltarik izango dugunik herrian; jendeak etortzen jarraituko du". Iruretarentzat turista guztiak izango dira ongi-etorriak Zumaian, "baldintza bakar batekin: jarrera konkretu bat izatea". Eta zehaztu egin du: "Hemengo hizkuntza errespetatzea; mugikortasunean ekarpena egitea, eta ez izatea molestia bat; mendira joan behar badute, zaborrak beraien motxilan hartu eta arrastorik ez uztea; eta garrantzitsuenak: ezagutza eramatea hemendik. Zumaia ez da aurpegi polit bat bakarrik. Gauza asko ditu, eta ezagutza hori bisitari edo turistak eraman dezala bere tokira. Hori izan da beti gure helburua". ■



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali ekainaren 23a baino lehen.

Saria: TIPITakin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Maiatzako Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 21. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Aloña Otegi** bazkidea izan da irabazlea.





SAREGILE BERRIEN AMARAUNA

Julen Portillo eta Nerea Rodriguez
EDUKI SORTZAILEAK

Gizartea eraldatzen ari den honetan, ogibide batzuek indarra galdu dute, baina berriak ere sortu dira. Azken hamarkadako saregile berriak bilakatu dira eduki sortzaileak. Julen Portillo eta Nerea Rodriguez zarautztarrak dira horietako bi: euskal TikTokerra da lehena; komunikazio politikoan aditua bigarrena.

Testua: **Andrea Zipitria**. Argazkiak: **Urtzi Oteiza**.



Zarauztarrak dira biak ala biak, eta badute beste zerbait ere komunean: eduki sortzaileak dira. Julen Portillo (1994) euskal tiktokerra da, eta Nerea Rodriguez (1978) komunikazio politikoan aditua. Rodriguezek hainbat entitaterean sare sozialak kudeatzen ditu gaur egun, hori du momentu honetan ogibide. Portillo, berriz, denbora librean ibiltzen da TikTokerako edukiak sortzen; diru sarrerak lortzen dituen arren, ezin du horretaz bizi.

Zer esan nahi du sare sozialetako eduki sortzailea izateak? Nolakoa da zuen eguneroko bizimodua?

J.P.: Ez dakit nondik hasi definitzen. Oso zaila egiten zait. Azkenean, noiztik aurrera zara eduki sortzailea? Edukia sareetara igotzen duen pertsona bezala definitzen dut nik nire burua; hau da, edukiak igotzen

dituen beste edozein bezala. Nire egunerokotasuna zera da: lanera joan, zortzi ordu bete eta denbora librean bideoak igo. Eta noski, disfrutatu.

N.R.: Nire kasua ezberdina da. Julenek bere sare sozialetan partekatzen ditu egiten dituen edukiak, baina nik beste pertsona batzuentzat egiten ditut edukiak. Eduki horiek askoz ere planifikatuagoak direla esango nuke, eta baliabideak ere, agian, ezberdinak dira. Nik eduki sortzailea komunikatzeko beste bide bat bezala definituko nuke; eduki sortzailea da sareetan edukiak sortzen dituen.

Bi ikuspuntu ezberdin azaldu dituzue. Zuen iritziz zein da zuen jardunaren alderik onena eta txarra?

J.P.: Txarra, jendeak zutaz barre egitea. Azken aldian, hori pertsonalki asko ari zait eragiten. Baina alde onak ere baditu. Positiboena herritarrei nire edukiak gustatzea dela esango nuke.

N.R.: Egunero abentura berri bat dagoela martxan da niretzat positiboena edo behintzat gehien gustatzen zaidana. Leku ezberdin asko ezagutzeko aukera ematen du ogibide honek, eta esango nuke alderdi emozionala ere baduela, ikuspegi positibotik begiratuta. Okerrena, berriz, eduki bat egin eta ez funtzionatzea da nire iritziz. Adibidez, igotako edukia jende gutxik ikusten duen kasua aipatuko nuke. Hori bai, alde positiboak negatiboak baino gehiago dira nire ustez.

Nolabait esateko, besteen menpe ere bazaude. Batzuk saiatzen dira, baina arrakasta ez dute guztiek lortzen: zein da arrakasta lortzeko sekretua?

N.R.: Niri interesatzen zait eduki batek zer-nolako erantzuna edota babesaren jakitea, hori izaten baita askotan lana ondo egin duzun seinalea. Dena den, ez da beti horrela izaten. Garrantsituena beti koherentzia mantentzea da, lan fina eta ona egitea. Izan ere, arrakasta ez dago hain nire esku. Profesionala ere izan behar duzu, eta ezinezkoa da, esaterako, bideo bat gaueko ordu txikitan igotzea. Ziur nago zuk ere kontuan hartzen duzun zerbait dela hori, Julen. Horrenbestez, egindako lan batekin gustura geratzea da arrakasta.

J.P.: Nereak esandakoa azpimarratu nahiko nuke. Askotan, sareetara igo aurretik, eduki batek arrakasta izango duela uste duzu, baina ez da hala izaten beti. Ni euskarazko edukia egiteko helburuarekin hasi nintzen egiteko honetan. Egun batean 50.000 ikustaldi izaten ditu bideo batek, eta hurrengoan, berriz, mila ikustaldi beste batek.

Edukiak arrakastarik izaten ez dutenean, eragiten al du zuengan?

N.R.: Harrotasun puntu horretatik, gure bihotzean eragiten duela esango nuke. Kontua da *influencer* handien kasuan askoz ere handiagoa dela eragina. Guk ez ditugu *influencer* horiek dituzten bezalako helburuak.

J.P.: Halako helburuak noski ez ditugula, baina arrakasta ezak badu eragina nigan. Orain ez hainbeste, baina izan ditut oso onak izan ez diren hilabete batzuk. Guztia begiratzen ibiltzen nintzen: jarraitzaileak galtzen nituen ala ez... Nire osasun mentalari kalte egiten ari nintzela ohartu nintzen momentu bat iritsi zen, eta hori makro *influencer* horiekin alderatuta, ez naizela inor. Ez dut imajinatu ere egin nahi nola eragingo dien arrakastak haiei.

N.R.: Makro *influencer*-ak metriken oso esklabo dira.

Influencer-en gaia jarri duzue mahai gainean. Gaur egun, gazte askok esaten dute handitan influencer izan nahi dutela. Askok, gainera, halako pertsonaiak dituzte idolotzat. Erraza al da sare sozialetako jardun horretatik bizitzea?

N.R.: Saiatuta ez duzu lortuko inoiz *influencer*-a izatea; berezko zerbait eduki behar duzu. Gaur egun, hainbeste profilekin zaila da zurea zerbaitetatik bereiztea. Zerbait ezberdina eskaini behar duzu edo bideo batek oso ongi funtzionatu behar du makro *influencer* bilakatzeko. Gainera, marka asko mikro *influencer*-ekin hasi dira lanean. Gazteei esango nieke ez pentsatzeko izugarriko *influencer*-a izatearekin; izan zaitezte zuen kaleko edota auzoko *influencer*-ak.

J.P.: Bideo bat birala egitea ez da hain zaila gaur egun. TikTok ikustaldi asko izaten dituzte bideoek, baina behin ikustaldi asko lortuta, zaila da horretan mantentzea. Ez da hain zaila lehenengo bideoan originala izatea, baina asko egin behar baldin badituzu... Hor dago koska.



"Instagram da nire sare sozialik gustukoena; baina Youtube kontsumitzen dut gehien"

"Youtuben kanal garrantzitsu bat nuen, baina bideo guztiak borratu ditut"

"Gazteengan eragin handia dute sare sozialek, eta hori eskoletatik ondo landu beharreko zerbait da."

Nerea Rodriguez

N.R.: Horri jarraiki, gaur egun dena ikusita dagoela gehituko nuke. Askotan, eduki txar asko saltzen dituzte, eta ildo horretatik ezin da tira.

Noiz ireki zenuen TikTokeko kontua, Julien?

J.P.: Pandemia hasi berria zela sortu nuen kontua, isilpean gainera. Hasieran lotsa ematen zidan TikToka nuela esateak, baina gero ikusi nuen herritarrei asko gustatzen zitzaizela, eta lasai hasi nintzen esaten. Gainera, lehen hala uste nuen eta orain ere bai, iruditzen zait sare sozial guztietan onena dela TikTok. Gaur egun, 9.000 jarraitzaile pasatxo ditut, eta edukiak euskaraz egiteko, ez dago batere gaizki.

Eduki guztiak euskaraz egiten dituzu. Zergatik?

J.P.: Hautu politikoa da, nire hizkuntza delako euskara. Askotan ematen du euskaraz ezin dela regetoia egin, ezin dela umorea egin... Baina euskal kultura ez da trikitia, bertsoak eta esku pilota bakarrik. Falta da euskarazko prentsa arrosa, adibidez. Falta da dena gure hizkuntzan egitea. Zergatik euskaraz? Galdera horri beste galdera batekin erantzungo nioke: zergatik ez?

Inoiz sentitu al duzu beste hizkuntza batean aritzeko beharrik?

J.P.: Ez. Orain dela gutxi ETB2ko *Akelarre* saiotik deitu zidaten, bideo laburpen bat egiteko esanez. Oso ondo iruditu zitzaidan proposamena, baina baldintza bakarra jarri nien: euskaraz egingo nuela. Zertarako egingo dut gaztelaniaz? Nire audientzia euskalduna da, eta sortzen dudana edukia haienezakoa da.

Sare sozial asko daude, baina zeinetan sentitzen zarete eroso?

J.P.: Nik esan dut... [barrez].

N.R.: Nire sare sozialik gustukoena Instagram dela esango nuke. Hala ere, Youtubek txoko handi bat du nire bihotzean. Izan ere, bere garaian, Youtuben banuen kontu bat, jarraitzaile askorekin; oso ondo funtzionatzen zuen. Orain, bideo guztiak borratu egin ditut, txorakeria dezente egiten nituen-eta garai hartan. Gaur egun ere, Youtube Instagram baino gehiago erabiltzen dut. Dena den, lanean gehien erabiltzen dudana sare soziala da Instagram.

Zergatik utzi duzu alde batera Youtubeko kanala?

N.R.: Momentu batean egiten dituzu gauzak gustura, baina urte batzuk pasatu ondoren ez zara hainbeste identifikatzen pertsona horrekin. Izan ere, denok joaten gara garatzen eta aldatzen. Youtubeko kanalean banituen, esaterako, ile beltzarekin agertzen nintzen bideo batzuk, eta urte asko dira jada ez dudala nire burua ile beltzarekin ondo ikusten. Orduan askoz ere gazteagoa nintzen, eta ez nuen umerik; gaur egun beste pertsona bat naiz. Horregatik ezabatu nuen kanala. Garai berriak dira, eta edukia ere aldatu egin behar da. Lehen esan dudan bezala, orain Instagram erabiltzen dut batik bat, eta gehienbat lanerako, gainera; nireak ez diren beste profil batzuk kudeatzen ditut. Instagrameko kontu pertsonalari dagokionez, orain dela urte batzuk Telecincon aritu nintzen lanean, eta ordu-tik jarraitzaile asko ditut, baina argazki bakarra daukat igota. Momentuz kontua mantendu egin nahi dut. Agian, egunen batean hasiko naiz edukiak-eta igotzen.

Nerea, komunikazio politikoan aditua zaren aldetik, gomendiorik emango al zenioke Juleni?

N.R.: Bere marka euskara bada, horri eusteko esango nioke. Gaur egun oso zaila da besteen-gandik desberdintzea, eta marketin eta komunikazio arloetan aritzen garenok garrantzi handia ematen diogu markari.

Hizkuntza aipatu duzunez, zu, Nerea, gehiago aritu zara erdal munduarekin harremanetan...

N.R.: Bai, hala da. Nire ama hizkuntza gaztelania da, nahiz eta euskara ondo menperatu eta euskara erabili kalean zein lanean. Zerbait naturala izan behar duenez, sare sozialetan gaztelera hitz egitea ateratzen zait niri. Azken finean, bizitza errealean duzun egunerokoaren isla izan behar du sare sozialetan jartzen duzunak, ezin duzu artifiziala izan sareetan.

J.P.: Ñabardura bat egin nahiko nuke horren inguruan. Herritar askok pentsatzen dute nire ama hizkuntza euskara izan dela betidanik, baina ez da hala. Nire familian bi kide soilik gara euskaldunak: anaia eta biok. Gurasoak extremadurarrak dira, eta nik etxean gaztelera



"Zertarako egingo dut gaztelaniaz? nire audientzia euskalduna da, eta haintzat sortzen dut edukia"

"Duela hilabete batzuk psikologoan hasi naiz; sare sozialetako gauzak niregan eragina zutela ikusita"

"TikToketik diru-sarrerak baditut, baina gaur egun zaila da horretaz bizitzea"

Julen Portillo

hitz egiten dut, baina erosoago sentitzen naiz euskarazko edukia sortzen.

Irudiaren gaia aipatu duzue. Sare sozialetan ikusten den guztia ez dela errealia esan ohi da. Zer iritzi duzue horri buruz?

N.R.: Bi joera daude. *Influencer*-ek igotzen dituzten irudiak marketinari oso lotuta egoten dira, eta zentzu horretan, ez dute hainbesteko askatasunik izaten beraiek nahi dutena egiteko. Nik ez ditut inoiz marka handiak atzetik izan, eta halakoetan, naturalago izaten dira kontuak. Ez zara iragarki bat, pertsona bat baizik.

J.P.: Sare sozialetako Julen ez da pertsonaia bat, baina kalean baino gehiago esajeratzen dut. Askok uste dute txisteak egiten pasatzen dudala eguna, baina ez da horrela. Ni, berez, pertsona lasaia eta lotsatia naiz. Herritar askok ez dakite bizitza errealia eta sare sozialetakoa desberdintzen.

Markaren batek jo al du zuengana publizitatea egiteko eskatuz?

N.R.: Bai, baina markak baino gehiago agentziak dira guztiaren atzean daudenak. Agentziek nolabait marka ezberdinekin kolaboratzen dute, eta *influencer* jakin batzuekin hitzartuta edukitzen dute kontratua. Azkenean, negozioa da hori ere. Garai batean, agentzia batekin egin nuen lan, baina oso gutxi iraun nuen; hilabete bat, gutxi gorabehera. Ez dut horretarako balio.

J.P.: Markekin ez dut lan egin, baina izan ditut diru sarrerak, gehienbat, Eusko Jaurlaritzaren edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik. Izan ere, euskara sustatzeko hainbat egitasmok egiten dituzte horiek. Duela bi urte, nire produkzio bat alde batera utzi behar izan nuen, sareetan soilik jarduteko. Urte eta erdiz eutsi nion jardun hari, baina ikusi nuen ezin nuela bizitza harekin jarraitu. Oraindik ere izaten ditut diru sarrerak, baina oso ezberdina da; izan ere, gaztelaniaz aritzen diren *nfluencer*-en bueltan askoz ere diru gehiago mugitzen da. Hala ere, euskararen alde egiten den apustua gero eta handiagoa da, eta hori eskertzekoa da.

Diru sarrerak tarteko, presioa sentitu duzue noizbait?

N.R.: Orokorrean, ez. Baina lehen aipatu dudana agentzia harekin lanean hasi nintzenean, sen-

titu nuen nolabaiteko presioa. Haiek esaten zidaten zer egin behar nuen, eta hori ez zitzaizdalako gustatzen hartu nuen haiekin lanean ez jarraitzeko erabakia.

J.P.: Nik ere ezetz esango nuke.

Sare sozialetan pertsonari ala haren itxurari ematen zaio garrantzi handiagoa?

N.R.: Pertsona guztiok gauza ezberdinak kontsumitzen ditugu sare sozialetan. Horrenbestez, pertsonaren eta jarraitzen dituzun profilen arabera, garrantzia ematen diozu gauza bati ala besteari. Lanean kudeatzen ditudan profiletan sortzen dudana edukia kontsumitzen duten pertsonak mezuari ematen diote garrantzia, adibidez. Gazteagoa nintzenean, aldiz, garrantzi handiagoa ematen nion irudiari. Gaur egun, denetarik aurkitu dezakezu sare sozialetan.

J.P.: Nik ez dakit galdera horri erantzuten, handi geratzen zait gaia.

Irudiak, orduan, badu gazteengan eragina?

N.R.: Zalantzarik gabe. Gainera, hori ez dut nik bakarrik esaten. Gaiaz ikerketa asko egin dira, eta adituek esaten dute sare sozialetan ikusten denak eragin zuzena duela gazteengan. Leku askotatik etor daiteke influentzia hori, gainera. Nik neuk ere erabili izan ditut filtro surrealistikak batzuetan; halako gauzak eginda, gazte askok pentsa dezakete hori dela irudi errealia, baina ez da hala. Bestalde, sare sozialetan ciberrullinga egiteko aukera dago. Eskoletan horri buruzko pedagogia lan handia egin behar da, eta gazteei erakutsi behar zaie egoera horiek nola kudeatu. Matematikako eskolen pare jarri beharreko gauza da hori. Gazteek tresnak behar dituzte, eta guk ere bai, baina urteekin gauzak ezberdintzeko buru gehiago izaten da normalean. Gaur egun ez du balio pertsona bat eskolara joan eta hitzaldi bat eskaintzeak; hori ez da nahikoa. Gazteengan eragin handia dute sare sozialek, eta hori eskoletan ondo landu beharreko zerbait da.

Sare sozialetan aldaketarik ikusi al duzue azken urteetan?

N.R.: Bai, eta ez nik bakarrik, gizarte guztiak baizik. Gauzak nahiko bare zeudela pentsatzen genuenean, TikTok azaldu zen; Facebook, berriz, itzalean geratu da. TikTok iraultzailea izan da; bai musikaren munduan, bai marketin ar-



loan... Lehen asko saltzen ziren eduki luzeak, eta gaur egun, gauza bat ikusten ez ditugu hogeiei segundo ere irauten. Facebook sortu zenean, lagun artean barre egiteko eta komunikatzeko erabiltzen zen, baina gaur egun, sare sozialak komunikatzeko tresna garrantzitsu bilakatu dira. Edonork ditu sare sozialak, herrialde desberdinetako presidente guztiek, adibidez; denek komunikatzeko erabiltzen dituzte beren profilak.

J.P.: Bai, aldaketa handia izan da. Gaur egun bizi dugun egoeran hogeiei segundo ere ez ditugu jasaten bideo bati begira. Pentsa, Youtubeko iragarki bat bera ere ez dugu ikusten. Oso zaila da guztia; izan ere, bi edo hiru segundo dituzu ikus-entzunleen begietatik sartzeko.

Hori kontuan izanik, nola moldatzen zara jarraitzaileen arreta lortzeko, Julien?

J.P.: Uste dut euskarazko edukiak egiten ditudalako lortzen dudala arreta piztea. Herriarrak hizkuntzarekin identifikatuta sentitzen dira. Gainerakoan, ez dut ezer ezberdina egiten. Horrekin jarraituta, esango nuke gaur egun ez dela hain zaila TikTok jarraitzaileak

lortzea. Hiru edo lau bideo biral egiten badituzu, nahikoa jarraitzaile eskuratzen dituzu.

Edozerk balio al du jarraitzaileak lortzeko?

J.P.: Edozerk. Askoren helburua ikustaldiak lortzea da, eta horretarako edozer egiten dute. Edukiak ikusita, edozer gauza pentsa dezakezu haiei buruz, baina beraiek gustura egoten dira bideoa ikusi izanagatik bakarrik.

N.R.: Edozerk balio du, bai. Gaur egun denetarik egiten du jendeak. Ez dakit ona ala txarra den, baina gure arreta bereganatzea lortzen dute. Neuk ere askotan ikusi izan ditut halako edukiak, ez dut gezurrik esango; are gehiago, argazki bat ateratzerakoan bizitza galdu dute sare sozialetako erabiltzaile batzuek.

J.P.: Nereak aipatutakoari gehituko nioke sare sozialek onartu egiten dutela horrelako edukiak zabaltzea. Hori agian, mugatu egin beharko litzateke, zer dagoen ondo eta zer gaizki zehaztu.

N.R.: Instagramen nahiko zorrotz dabilta mugekin, ezin duzu ezer erakutsi.

J.P.: Hala da. Emakume batek titiburuaren zati txiki bat erakustea ez dute onartzen Instagramen, baina gero jendeak ikaragarritzko gauzak egiten ditu eta horiek onartu egiten ditu.

N.R.: Horretan bat nator zurekin, Julien. Guztiok dakigu titiburuaren gaiak zer-nolako iskanbila sortu duen. Titiburuak erakusten uzteko mugimendu bat ere izan da tartean, baina ez dute ezer lortu.

Teknologiak bere alde onak baditu, baina arriskuak ere bai. Horri lotuta, Nerea, bizi izan zenuen esperientzia nahiko gogor bat. Jendea ezagutzeko aplikazio batean identitatea ordezkatu zizuten...

N.R.: Bai. Pertsona bat nirekin jarri zen harremanetan, eta esan zidan Tinderren ikusi ninduela. Nik ez dut inoiz Tinder erabili, baina norbaitek Instagramen nituen argazkiak hartu eta profil bat sortu zuen Tinderren. Jada ez naiz oroitzen profil faltsu hartan jarri zidaten izenaz, baina A Coruñakoa nintzela zioen eta nituenak baino urte gutxiago nituela ere bai. Hori ikusita, salaketa jarri nuen, baina gaur arte ez dut ezer jakin gaiaz. Ez didate ez deitu, ez gaia aztertu dutenik esan, ez ezer. Horrekin esan nahi dudana da sare sozialetan jartzen dugunarekin ere kontuz ibili behar dugula; izan ere,



gero sareetan geratzen dira argazki horiek, eta auskalo nora iristen diren.

J.P.: Niri ez zait halako ezer gertatu, eta espero dut etorkizunean ere halakorik ez pasatzea. Uste dut halako gauzak erraztasun handiagoarekin egiten zaizkiela emakumeei. Emakume baten irudiak gizon batenak baino gehiago saltzen du, zoritxarrez.

Sare sozialetan sexuen arteko arrakala hori badagoela pentsatzen al duzue?

N.R.: Bai. Sare sozial neutralez jardun gara, baina badira hain argiak ez diren beste batzuk.

J.P.: Bai, badago, eta ez nuke jakingo arrakala hori handitu edo txikitu egin den esaten. Only-Fans sare soziala nahiko zeresan ari da ematen zentzu horretan, adibidez. Ikaragarria da jendeak dirua irabazteko zer gauza egiten dituen... Sare horietan dauden pertsona guztiak benetan nahi dutelako al daude? Hori da nire galdera.

Halako sare sozial berriek beldurra ematen al dizute?

N.R.: Beldurra ez da hitza, baina erregulatu eta arautu egin behar dira horrelako gauzak. Gazteak daude tartean, eta pornografiak hitz egiten da askotan. Gaur egun kontsumitzen den pornografia min handia ari da egiten gazteengan.

J.P.: Sare sozial guztietan arautu behar dira gauzak, ez batzuetan bakarrik.

Emozionalki sortzen al dute eraginik sare sozialek?

N.R.: Bai, onerako eta txarrerako.

J.P.: Bai, dudarik gabe. Duela hilabete batzuk ikusi nuen sare sozialetako gauzek eragina zutela nigan, eta psikologoarengana joaten hasi naiz. ■



Ikusi eskusiban Julen Portillo eta Nerea Rodriguezeri egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



PUBLIZITATEA

ekin
elektrikitate, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekin@ekinl.com www.eekinl.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Garaa

Carlos Cintero / Ainhoa Olaizola
tel.: 943 86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbilo kalea, 12 behe
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behe
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokalirua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAI**

943-86 20 83

KABI
Patxika Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

Ezohikoak, baina normalak diren beldurrak



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Gehiago edo gutxiago, baina haur guztiek dituzte beldurrak. Batzuk garapenaren barruan daude, beste batzuk garatu egiten dituzte. Askok behin-behinekoak dira; beste batzuk betirako geratzen dira.

Badaude beldur batzuk denboran luza daitezkeenak, eta akonpainamendu gehiago behar dutenak, baina normaltasunaren barruan sartzen direnak. Batzuetan kezkatu egiten gaituzte horiek, eta behar dutena baino arreta gehiago jasotzen dute. Baina beldur horiek onartzen baditugu, eta ez badugu haurra behartzen nahi ez duen hori egitera, gutxiago irauten dute, eta pixkanaka, pasatu egiten dira.

Beldur horiek normalean egunerokotasunean egoten dira, eta egunero eragiten dute. Gehien ikusten direnak ondorengo hauek dira:

Dutxari edo urari beldurra

Haur askok diote urari beldurra. Batez ere burua ur azpian sartzei beldurra. Harrapatuak sentitzen direlako izan ohi da. Askok larritzen dira, eta askotan, nahi gabe gertatzen bazaie,

beldur hori handi daiteke. Baliteke denbora luze batez burua garbitzeko ordua drama bat izatea. Baina hobe da drama hori errespetatzea beldurra ez areagotzeko.

Komunean kaka egiteari beldurra

Hau oso ohikoa izaten da. 4-5 urte arte iraun dezake, eta ez da arazo larri bat. Gehienek pixoihala eskatzen dute kaka egiteko, ez dutelako komunean egin nahi. Ez da arazo bat. Haur batzuek denbora hori behar izaten dute. Egia da ez dela eroso, baina gogoratu gehien sufritzen duena ere haurra dela. Zenbat eta gehiago errespetatu bere erritmoa, azkarrago gaindituko du egoera hori.

Ez du nahi jan lehen jaten zuena

2 urte ingururekin, lehen jaten zituen elikagai pila bat jateri uzten diote. Neofobia deitzen zaio horri. Autonomia eskuratzen duten heinean

instintiboki azaltzen da, eskura dituzten eta ezezagunak diren janari arriskutsu eta janari itxura duten gauzetatik babesteko. Neofobiak 8-9 urte arte irauten du.

Galtzerdiekin arazoak

Hau klasiko bat da: hogeitaz galtzerdi pare aukeran, baina hiru gustuko. Kasu hauetan, gustuko dituztenen berdinak bilatzea tokatzen zaigu. Gainera, batzuetan horrekin ere ez dira eroso sentitzen... Pazientzia, beraz.

Guraso bezala presa sartzen zaigu eta beldurrik ez sentitzea nahi izaten dugu. Gogoratu, ordea, beldurra ere gure bizitzan behar dugun emozio bat dela, eta zenbat eta gehiago onartu, orduan eta errazago izango dela haurrarentzat beldur horrekin bizitzea eta gainditzea, eta maiz, presa izateak, nahi dugunaren kontrako efektua lortzen duela. ■

**ZENBAT ETA GEHIAGO
ERRESPETATU BERE
ERRITMOA,
AZKARRAGO
GAINDITUKO DU**



Margotu

Eman kolorea lagun talde honi. Izar batzuk ere marraztu itzazu, gaua da eta.

Itzala

Zortzi itzal hauen artetik zein ote da zuzena?



GAIZVLUNPTOKIWUP IRAWUPBAZIAWUP,
VLUNPIRAWUPTXOMUJEKWUPVLUNP
VLUNPIRAWUPGAMUJZIAWUP



Zeer?!

Ezaba itzazu VLUNP,
WUP eta MUJ
guztiak eta iratxoan
gaineko esaera bat
agertuko zaizu.

DOMINOAN



Egin itzazu falta diren marrazkiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Sudokua

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

ALdea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 10 dira guztira.



ENGainagarriak

10 puska hauetatik 5 irudi nagusitik hartuta daude eta besteak ez. Bereiz itzazu.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Artadin eraikitzen ari den etxebizitzaren azken promozioa amaitzen ari da Inmobiliaria Orio

Zumaiako Artadin eraikitzen ari diren 10 etxebizitzaren lanak "oso aurreratuta" doazela adierazi dute arduradunek. Horrez gain, Inmobiliaria Oriok abian ditu beste promozio batzuk Orión, Zarautzen eta Elgoibarren, eta etorkizunera begira, asmo berriak agertu ditu.

Artadiko auzoan kokatzen den promozioetako etxebizitzaren lanak "oso aurreratuta" doazela adierazi du Inmobiliaria Oriok, eta, beraz, 10 etxebizitzak prest izango dira laster; "uztailean giltzak ematea espero dugu", esan du Inmobiliaria Orioko Pedro Aiestaranek. Artadiko auzoan eraikitzen ari diren 10 etxebizitza horiez gain, promozioak baditu garajeak, trasteroak eta baita baratzak ere.

Eraikin berria Inmobiliaria Oriok Artadi auzoan egingo duen azken eraikina da. "Oraindik badaude lursail batzuk etxeak eraikitzeko, baina lursail horiek salduta daude eta jabeak ari dira beraien etxeak egiten. Artadi zeharo eraberritu da eta urbanizazio berria, txaletak, etxebizitzak eta jatetxea ere martxan jarri dira, auzoa biziberrituz".

Artadiko horrez gain, Inmobiliaria Oriok beste hiru promozio ditu esku artean eskualdean eta inguruan.

Kaioa (Orio)

- Orioko kai aurrean.
- 24 etxebizitza egiten, garajeekin eta lokalekin.
- Obra aurreratuta dago, eta 2023 amaierarako edo 2024 hasierarako amaituta egotea aurreikusten dute.

Torre Luzea (Zarautz)

- Zarauzko erdigunean.
- 17 etxebizitza, garajeekin.
- Orain gutxi jarri da abian, eta 2024 bukaerarako edo 2025 hasierarako egongo dira bukatuta.

SF54 (Elgoibar)

- Elgoibarko erdigunean, San Frantzisko kalean.
- 18 etxebizitza.
- Abenduan hasi ziren lanak, eta 2024 amaierarako bukatuta egotea aurreikusten dute.

Etxebizitzaren promozio guztiek badituzte berezitasun batzuk amankomunean, Inmobiliaria Oriok bereziki garrantzia ematen dioten ezaugarriak

direnak: efizientzia energetikoa, diruaren aurrezpena, bezeroen konforta eta etxebizitza osasuntsuak. "Promozio guztiek kalifikazio energetiko gorena dute, eta ahalegin handia egin dugu kalitatezko etxebizitzak izan daitezen, estetika handikoak, eta ingurunearekiko errespetu handikoak", adierazi du Aiestaranek.

Efizientzia energetikoa da, hain zuzen ere, enpresaren ardatz nagusietako bat, jasangarritasunaren alde egiten baitu zalantzarik gabe bere obra guztietan. Efizientzia energetiko A, gorena, lortutako lehenbiziko eraikinak bailaran, Inmobiliaria Oriok egin zituen eta bide horretan jarraitu du urte hauetan. Horrela, duela urtebete lortu zuen *Pasivhaus* zigilua Zarauzko Nafarroa kaleko bere bulegoetako eraikinean, modalitate horretan Euskadin egiten lehena izanik. Sustatzailearen hitzetan, "gure erronka bezeroengan azterna positiboa uztea da, bizi-kalitatea irabazi dezaten, eta, aldi berean, etxebizitza eraginkorrekin



karbono-aztarna murrizten laguntzen dugu".

Aurrera begira, asmo eta helburu berriak dituztela aurreratu du Inmobiliaria Orioko arduradunak: "Gure bailaran eta inguruko herrietan horrelako etxebizitzak egiten jarraitu nahi dugu, benetan sinesten dugun zerbait delako. Orioko herrirako badugu beste proiektu bat esku artean, adibidez. Hala ere, proiektu gehiagoren bila gabiltza eta herritarrek etxebizitzak, lur eremuak edo ideiak izanez gero, gurekin harremanetan jar daitezela, etxebizitza onak leku onean, osasuntsuak eta pertsonalizatuak egiten jarraitu nahi dugu eta".

Herriarekiko konpromisoa
Inmobiliaria Oriok
inguruarekiko eta

bezeroarekiko erakusten duen konpromisoa ez da, baina, hor amaitzen. Izan ere, eskualdearekin, bertako udalerri bakoitzarekin eta horietako herritarrekin ere badute konpromisoa, eta modu desberdinetan erakusten saiatzen dira: "Gure asmoa ez da etxeak egin eta kito, herrian eta herritarrengan eragina nahi

**"EFIZIENTZIA
ENERGETIKOA,
DIRUAREN
AURREZPENA,
BEZEROAREN KONFORTA
ETA ETXEBIZITZA
OSASUNTSUAK DIRA
OINARRIAK"**

dugu izan, etxebizitzak egiterakoan ingurunea zaintzen dugu adibidez, erdiguneak berreskuratzen saiatzen gara, parkeak eta ekipamenduak eskaintzen ditugu. Babesletzak ere egiten ditugu, bereziki arraunean Zarautzen eta Orion. Herriaren parte izan nahi dugu, enpresa eta pertsona gisa", amaitu du Aiestaranek. ■■■



Nafarroa Kalea 13. Zarautz
943-89 44 33
www.inmobiliariaorio.com

PUBLIZITATEA

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración



Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edo zertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etengabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



OREKA
KIROPRAKTIKA

Aita Mari, 17 behe - Zumaia
943-02 04 77
info@orekakiropraktika.com @oreka.kiropraktika

OSA
BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 - tel. 943-86 14 12 - 686 36 41 49



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indutrigunea, A1 - 4. p. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 88 - Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com - e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

talaraia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Tapaia
taberna



Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN Izasterri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloak)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 behe - Tel. 943 573 905



UKENDU
**PARABOTIKA
BELARDENDA**

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

yoana
ileapaindegia



Amaia plaza,
2 behe
943-14 32 78

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

Soldadutzara

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO
OSTOLAZA

1876an, Bigarren Karlistaldia amaitu eta Espainian Errestaurazioa ezarrita, gizonezkoek soldadutza nahitaez egin beharra etorri zen, eta 2001. urtera bitartean, Euskal Herriko milaka eta milaka gizonezko gaztek denboraldi luze bat herritik kanpo eta gehienetan oso urruti pasatu behar izan zuten. Ondorioak eta eraginak askotarikoak izan ziren, baina hizkuntzaren alderdikoak ere nabarmenak; izan ere, gazte haietako askok euskara besterik ez zekiten edo gaztelaniaz apenas egiten zuten, eta soldadutzara joan zirenean, gaztelania hutsean funtzionatzen zuen egitura eta inguru batean murgildu behar izan zuten. Soldadutzari *esker*, gaztelaniaz ezer gutxi zekitenak, soldadutza egin ondoren, gaztelaniaz moldatzeko moduan bueltatzen ziren atzera herrira, ikasita, eta batzuk, gainera, erdaldunduta. Adierazgarria da, adibidez, Erramun Manterola Galdonak (1915-2009) kontatzen zuena, haien aitaitaz, *Baleike* batean:

"Nere aittata, nere aittona Felipe, amen aitta, nik neuk enun ezautu. Nik ura il tzanian 3 urte nezkan ta garai artan emendik soldau etzan inor june eiten, baizikan orduan aiek ein

tzituen obligatu. Eta aiek irurak, Felipe Galdona, Karlos Gorostola eta Nikolas *Kapitan*, irurak eraman zituen Madrida. Nere aittata izan tzan Filipinasen. Andik etorri zanian, Filipinastik etorri zanian ba erderaz, gaur an ingleseiz eiten da baña orduan erdeaz. **Eta nola emen etzan erderaz ezerre eiten ba ura pratiko¹ jarri zuen**"².

Hau da, aitaitari lanpostua eman zioten gaztelaniaz ikasi zuelako soldadutzan, kanpotik etortzen ziren itsasontzietakoekin gaztelaniaz moldatzeko gai zelako.

Soldadutzaren makineria izugarrian, udalak ere parte ziren eta oinarritzko zeregin bat zeukaten: urte jakin batean soldadu joan behar zuten gazteen zerrenda osatzea. Baina hasieran kosta zitzaien laguntzea, udalak uzkur ageri ziren-eta. Horregatik, 1877an, Gipuzkoako gobernadore zibila, Laureano Casado Matak, zirkularra argitaratu zuen euskaraz, buletin ofizialaren gehigarri, soldaduen erreklutamendua zela-eta, udalek lagundu beharra zeukatela akordarazteko eta zehazki zer egin behar zuten adierazteko; hauxe amaiera, mehatxu eta guzti, eta hobeto ulertzeko, euskararen aipamena propio eginda:

"Baldin desgraciyaz Alcatyac eta Ayuntamentubac

ez baluteque adituco prudenciya eta respetoco itza, eta adituco balituzteque conseju charrac, jaquindezate obligatuco nautela entregatzera militariaren Tribunaletara, izanditecen juzgatubac sidicioco presuac bezala; **eta prevenitzeco erocein escusa ez jaquiñarequin izquetan, convenico da ecarrideyen euskerara eta publicatu emen esaten derana**"³.

Harrezkero, beste udalek bezala, urtearen amaieran, hurrengo urtean soldadutzara joan behar zutenen zerrenda osatzen zuen Zumaiakoak, apaizek lagunduta, eta zerrenda hori egokitu egiten zuten pixkanaka: hildakoen edo kanpora joandakoen izenak kendu, herritar berrienak gehitu... Horrela, otsailaren hasieran, zerrendako mutil guztiei jakinarazten zieten soldadu joan beharra, eta martxoaren hasieran, "tallajea" egiten zuten, hau da: gazteei deitu, altuera neurtu, medikuak ikuskatu, alegatzeko zer bait ba ote zeukaten galdetu eta soldadutzarako gai ziren edo ez erabaki.

Horrela egingo zuten 1877tik, baina 1897ko tallajea bada bitxikeria bat, hurrengo urteetan ere agertzen dena (1902ra arte): propio dago jasota agirietan euskaraz ere galdetu zietela gazteei edo senideei ea ba ote zeukaten zer bait alegatzeko.



Horrela, 1897an, "Acta de clasificación y declaración de soldados" izeneko ekitaldian, gazteak banan-banan hartu zituzten, neurtu eta galdetu: "Nº 2 del sorteo (...) reconocido por el Sr. Facultativo titular le declaró útil. **Preguntado en vascuence y castellano si algo tenía que alegar**, o reclamación que hacer, contestó; que nada tenía que alegar aparte de la cortedad de talla (...) Nº 3 (...) **Preguntado en vascuence y castellano si algo tenía que alegar** para ser exceptuado o reclamación que hacer, contestó negativamente"⁴. Berdin egin zuten hurrengo guztiekin (guztira 16 lagun), baita aurreko urteetan kanpo geratu ziren mutilekin ere: "Nº 1558 (...). Reconocido por el Sr. Médico titular, le consideró útil. **Héchole saber en vascuence y castellano a que exponga** lo que tenga por conveniente respecto a su situación actual, contestó; que le sigue asistiéndole la misma exención otorgada en el año anterior"⁵.

1898ko tallajea ere antzera: "Nº 2 (...) Llamado se presentó. Tallado resultó ser con la de un metro setecientos diez milímetros. Reconocido por el facultativo titular, le declaró útil. **Preguntado en vascuence**

y castellano, si tenía que alegar o reclamación que hacer, contestó..."⁶; gainerako guztiekin ere berdin. "Nº 8 (...). Alegó su padre, que aparte de padecer un pólipo nasal es un imbécil y por lo tanto inútil para el servicio (...). **Preguntado en vascuence y castellano** si tenía alguna otra cosa que alegar o reclamación que hacer, contestó..."⁷; 12. zenbakia zeukana gormutua zen, eta amari galdetu zioten: "(...) **Preguntada su madre en vascuence y castellano...**"⁸.

Antzeko formulak erabili zituzten hurrengo urteetako tallajeetan: 1899an, "Nº 1 (...) Reconocido por el facultativo titular, le declaró útil. **Preguntado en vascuence y castellano** si algo tenía que alegar o reclamación que hacer..."⁹; 1901ean, "Nº 1 (...) **Preguntado a su padre en vascuence y castellano** si tenía que hacer alguna reclamación contestó negativamente"; "Nº 2 (...). **Preguntado en vascuence y castellano** si tenía algo que alegar o reclamación que hacer contestó negativamente"¹⁰.

Zergatik galdetzen zieten propio euskaraz? Segurantzia edukitzeko ulertu zutela, edo

bestela esanda, gaztelaniaz galdetuta, soldadu joan behar zuten gehien-gehienek eta haien senideek ez zutelako ulertzen zer galdetzen zieten, ez zekitelako gaztelaniaz. 1900 inguruan, aspalditik zen nahitaezkoa eskolara joatea, gaztelaniaz ikasiko zuten eskolan soldadu joan behar zuten mutilek, baina artean erdarak ez zuen indarririk, euskara nagusi zen eguneroko bizimoduan, eta gizonezko zumaiaarrak gaztelaniaz jakin gabe lasai bizi zitezkeen... soldadu joan arte. ■■■

¹ Praktikoa: portuko gidaria, inguru jakin bat ondo ezagutu eta bertatik doazen itsasontziak gidatzen dituen (Harluxet hiztegitik hartua). Zumaian badugu Praktikoeneko edo Bidegurutzeta etxea (San Telmo 6).

² Baleike aldizkaria, 79. zk., 2001-03. Belen Golmaiores "Herri euskara" atalean, "Nola hitz egiten zan Zumaian zuen gazte denboran?".

³ Wikiteka, Gipuzkoako Gobernu Zibilaren jakinarazpenak soldaduen erreklutamenduaz (1877-01-26), hemen: <https://labur.eus/OXZQN>.

⁴ Zumaia Udal Artxiboa 2827 (42), 1897-03-07.

⁵ ZUA 2827 (46), 1897-03-07.

⁶ ZUA 2827 (153), 1898-03-06.

⁷ Ibidem.

⁸ ZUA 2828 (64), 1899-03-05.

⁹ ZUA 2829 (91), 1901-03-03.

bertako
igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua

100€-tik /hileko



Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena

+2.000 bezerok gugan dute konfiantza

943 903 450 bertako.eus



DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41

Paregabeko sinkronia bat

ARGAZKIA ETA TESTUA: IVAN RODRIGUEZ GOMEZ

Gaua abaildu da eta izarrak irten,
inoiz ere bakarrik senti ez zaitezen,
munduko edozein txokotatik ikus daitezkeen argi zirkuluak,
alegiatzko ardatz bat osatzen duen iparrizarrak marraztuak,
argi distirak joaten eta etortzen, lorratzak etenik gabe dirdiratzan,
paregabeko sinkronia bat zeruan osatzen. ■■■





Eleberri beltzaren bidetik koloretako Iruñera



ERRETZAILE DAMUTUEN KONPAINIA

Egilea: Aingeru Epaltza

Argitaratzailea: Elkar

Argitaratze urtea: 2022

Orrialdeak: 300

Generoa: Narratiba



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Aingeru Epaltza idazle iruindarrak *Rock'n'roll* eleberriko Edu Saragueta *berpiztea* erabaki du, azkenean, beste modu bateko istorio bat kontatzeko. Hogei urte luze joan dira *Rock'n'roll*-etik *Erretzaile damutuen konpainia*-ra arte, eta ez dira alferrik joan; asko aldatu dira bai eszenarioa, bai pertsonaia nagusia.

Rock'n'roll-eko Iruña ondo ezagutzen zutenek baino ezin zuten eleberrian identifikatu, Euskal Herrian bizi genuen gatazkarik ez zen ordukoan agertzen eta euskarak ez zuen presentziarik istorioan. Oraingoan, benetako Iruña ageri da izenez eta xehetasun askorekin, bere konplexutasun osoan. Iruña multietniko bat, non euskaldunok talde bat gehiago garen bertze aunitzen artean, eta ez segur aski inportantea. Saragueta euskalduna da, eta agerian dago hiriaren egoera soziolinguistikoa.

Pertsonaia nagusiak ere jasan du hogeit hamar urtetako higadura: 60 urtetik hurbil dabil, osasuntsuago bizitzen saiatzen da, kirola egiten du, ez

du erretzen, alkohol gutxi edaten du, drogatik urrun bizi da... Horretarako lagungarri, badu lagunarte berri bat, erretzaile damutuen konpainia. Konpainiako lagunak dira Saraguetaren lagun bakarrak. Oso fauna berezia da, eta, gainera, erretzaile guztiak ez dira *fumatzaile* ohiak: kasu batzuetan, *erretzaile* hitzaren beste adiera erabiliz, gauzak erre izan dituzte. Badago militante ohiren bat, sindikalista ohiren bat, bankari ohiren bat, eta, okerre, TAOko zaintzaile bat, pertsonarik gorrotatuena, idazleak berak azaldu duenez.

Pertsonaiaren inguruko beste ezaugarri batzuk, berriz, gutxi aldatu dira. Neurri handi batean, Eduren bizitza kaka zaharra da. Patetiko samarra da. Bizi sentimental desastre hutsa du, bakarrik bizi da, eta sarearen bitartez ligatzen saiatzen da, arrakasta handirik gabe. Gainera, iraupen luzeko langabetua da, langabezia saria agortu duena. Etorkin auzo proletario batean bizi da orain, Arrosadia auzoan, etorkinez inguratuta.

Nobela beltza da, baina ezohikoa. Nobela beltzaren kanonetan hildakoa eta odola lehenengo orrietan agertzen dira, baina kasu honetan, idazleak lehenengo orrialde ugari erabiliko ditu pertsonaiaren eta egoeraren argazki zehatza eraikitzen. Lagun baten bidez iritsitako lan batek, hiriko telebista batean egingo dituen erreportaje batzuk abiatuko dute ekintza, eta laster ikusiko du bere burua katramilatuta: hainbat heriotza ekarriko dituen gertakari-katea, terrorismo islamikoa, azpijoko politikoa, ustelkeria... Protagonista heriotza-kate baten ikerketan murgilduko da. Azpitrama ugarien artean gai ugari ukitzen ditu idazleak, eta protagonistaren bizipenak hainbat gairi buruzko gogoeta egitera eramango dute irakurlea.

Umoreak toki handia hartzen du narrazioan. Sexuak, beste horrenbeste. Pertsonaien izaeraren arrastoa ematen duten eszenak bikainak dira, eta elkarriketak, bizi-biziak. Irria ezpainetan irakurtzeko liburu dugu *Erretzaile damutuen konpainia*. ■

BADATOR UDA!

Eskuratu GUKA produktuak



GUKA

Informazio guztia: www.baleike.eus/denda/



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

ZUMAIAKO MERKATARIEN ZILARREZKO HAMABOSTALDIA

Gertu erosi, gertu irabazi

Ekainaren 2tik 24ra

GINKANA berezia

1.500 € saritan



Zumaia
Udala



ZUMAI
BIZITZEKO
DA



GERTU

ZUMAIKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA

